

ELKARRIZKETA: KOLDO TELLITU • ESPERIENTZIA: TURINGO (ITALIA)  
HAUR ESKOLAK • EKARPENA: ESKOLAKO AGENDA 21 EUSKAL HERRIAN  
• GALDEIDAZUE: GABI GOIA • ILASKI SERRANO

**hh**  
**hik hasi**

**117**

**4 EURO • 2007KO APIRILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA**

**GAIA**

**Hizkuntzak  
irakatsi eta  
ikasteko  
proposa-  
men berria  
Euskal  
Autonomia  
Erkidegoan**






◀ **NIRE LEHENENGO AURKIKUNTZAK**

Hautzaroan adituak diren profesionalekin batera egindako *Nire lehenengo aurkikuntzak* bildumak liburu interaktiboak proposatzen ditu, haurren jakin-mina pizteko eta gauzen barnealdea eta atzealdea aurkitzera bultzatzeko.

▶ **NIRE LEHENENGO AURKIKUNTZAK. BEGIRA**  
Esku-argi magikoari esker, poliki-poliki orrialde bakoitzean ezkutuan dauden milaka zehaztasun ikusi ahal izango dituzu.



# aurkibidea



**8**  
gaia

## HIZKUNTZEN MARKO BERRIA EAE-N

Tontxu Campos Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak aurkeztu berri duen hizkuntzen inguruko proposamena agertzen da hurrengo orrialdeetan:  
*Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa: proposamen berritzailea eta eleanitza XXI. menderako.*



**18**  
elkarrizketa

## KOLDO TELLITU

Euskal Herriko Ikastolen konfederazioko lehendakari berriak indartsu ekin die aurrera begira dituen erronkei. Batzuei premiaz, beste batzuei patxada handiagoz, denei erantzuteko esperantzarekin.

**5** editoriala

**6** kronika

**8** gaia

**HIZKUNTZEN MARKO BERRIA EAE-N**

**18** elkarrizketa

**KOLDO TELLITU**

**26** esperientzia

**Turingo (Italia) haur eskoletan ikasten**  
Eneritz Atutxa eta Iratxe Etxeberria

**29** ekarpena

**Eskolako Agenda 21 programa Euskal Herrian**  
Jose Manu Gutierrez, Jon Benito eta Ritxi Hernandez

**32** galdeidazue

**Komenigarria al da ikastaldea mantentzea?**  
Gabi Goia

**35** berriak

**41** ...goza nazazu gehiago!

**Kirolean entrenatzaile-hezitzaileak erreferente dira**  
Aitor Uriarte

**42** Atzeko atetik  
**Ilaski Serrano**

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Tontxu Campos EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua (Argazki Press). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-III-23). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

# Harpidetza orria



**hik hasi<sub>k</sub>**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararutzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala

## apirila

### **Tontxu Camposen proposamenak herritarren kohesioan lagun dezake EAEn**



**Herria eta bere kultura aintzat hartzeak, garatzeak eta denok ezagutzeak herritarren arteko kohesioan asko lagun dezake. Dagoen zatiketa administratiboa eta juridikoa gainditzea ere lagungarri litzateke.**

Begi onez hartu du hezkuntza komunitateak “Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn” izenean Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak aurkeztu berri duen proposamena.

Proposamenak psikologia sozialaren ikuspuntutik baldintza garrantzitsuak bete duela esan genezake: derrigorrezko hezkuntza aldiak ikasle guztientzako marko bakarra egongo da eta euskara izango da marko horren ikas irakaskuntzaren hizkuntza nagusia.

Hori nola justifikatzen da? Alde batetik, ezarrita dauden hizkuntz ereduak aplikazioak bere helburuak ez dituela bete. Eta bestetik, arlo pedagogikoan egindako ikerketen arabera, euskaraz ikasteak kalterik ez dakarrela frogatu delako; aitzitik, onurak ekartzen ditu. Euskaraz aritzea omen da euskalduntzea lortzeko modu bakarra. Eta erdararen gaitasunari eta errendimendu akademikoari dagokionez, berriz, euskaraz ikasten dutenek erdaraz ikasten dutenen maila antzekoa edo hobea lor-

tzen dute.

Are gehiago, elebitasunak edota eleaniztasunak dituen abantaila sozialeraino gain, adituen ustez, norbanakoa-erentzako abantailak ere baditu: pentsaera sortzaileagoa, adimenaren malgutasun handiagoa, harremanetarako eta komunikatzeko gaitasun gehiago... lortzen omen da.

Tontxu Camposen proposamenak marko bakarra planteatzen du. Hori bai, helburu beretsuetara iristeko ikastetxe bakoitzak bere ibilbide propioa egingo du abiapuntua eta inguru soziolinguistikoa kontuan hartuz. Eta helburuak betetzen direla frogatzeko, neurri desberdinetako ebaluazioak planteatzen dira Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailetan eta Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailetan. Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean euskararen eta gaztelan B2 maila lortua izan beharko dute eta atzerriko hizkuntza batean B1.

Marko bakoitzeko abiapuntuak ezarri dituen helburuak bete nahi baditu,

irakasle eta langile guztien prestakuntza egokia ezinbestekoa da hizkuntza mailan, metodologian edota didaktikan. Behar handiagoa duten ikasleei laguntza handiagoa eskaini behar zaie la kontuan hartuz, bitartekoak jarritz, ikasle ratioak egokituz eta abar.

Hizkuntzak bere kulturari atxikitua joan behar du. Erabilgarritasun, baliagarritasun, motibazio eta atxikimendu afektiboa izan behar ditu berarekin. Horregatik du halako garrantzia curriculumak, euskal curriculumak, zehazki.

Gure herria eta kultura aintzat hartzeak, garatzeak eta denok ezagutzeak herritarren arteko kohesioan asko lagun dezake. Bestalde, duela bi mende ezarritako egitura administratiboek sortzen duten publiko-privatu zatiketak ez du batere laguntzen euskal herritarrek dituzten beharrei behar den bezala erantzuten. Horri ere heldu beharko zaio denon artean herri inklusiboagoa, justuagoa eta kohesionatuagoa lortu nahi badugu.

# kronika

Nafarroako Gobernuak behin betiko onartu du Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumaren proiektua, Hezkuntza Kontseiluak oniritzia eman ostean.

Ikasleen gaitasun orokorrak zehazten ditu curriculumak eta horiek garatzeari ematen dio lehentasuna. Gaitasunen artean, hauek aipatzen dira: komunikatzeko gaitasuna, matematika arlokoa, ikasleek euren inguruarekin harremanak izateko gaitasuna, informazioaren arlokoa, gaitasun soziala, kulturaren eta artearen arlokoa, ikasten ikasteko gaitasuna eta ekimen pertsonala garatzeko gaitasuna.

Gaitasunekin batera, hizkuntzak modu integratuan garatzeari ematen dio pisua curriculum berriak. Hau da, edozein hizkuntza ikasteko metodologia berbera erabiltzea, antzeko edukiak lantzea eta koordinazioa edukitzea.

Edukien arloan, Nafarroako geografia, historia eta kulturaren gaineko edukiei leku berezia egiten die.



## Nafarroako irakaskuntza publikoan akordioa sinatu dute

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Luis Campoyk eta sindikatuek irakaskuntza publikoaren kalitatearen inguruko aurreakordioa sinatu dute.

Otsailaz geroztik aritu dira negoziatzen eta denei egokitu zaie zenbait gaie-tan amore ematea. Ratioen kasuan, esate baterako, gobernuaren proposamenak egin du aurrera: Haur eta Lehen Hezkuntzan 25 ikasleko gelak izango dira eta DBHn 30ekoak. Sindikatuek 23koak eta 25ekoak nahi zituzten, hurrenez hurren. Lanbide Heziketaren kasuan bi aldeak bat etorri dira eta 20 ikasleko gelak izango dira.

Urte sabatikoaren kasuan, irakasleek urte sabatikoa hartzeko aukera izango dute baldintzak betez gero. 55 urtetik gorako irakasleen eskola kopu-

rua jaitsi egingo da. Lanaldi osoa duten gainerako irakasleek Haur eta Lehen Hezkuntzan 50 minutuko 22 eskola emango dituzte astean, eta DBHn 17 ordu. Horrez gain, herrialdeko lau zentrotan jardunaldi malgua jarriko da martxan datorren ikasturterako eta ondoren emaitzak aztertuko dira.

Hitzarmenaren iraupena lau urtekoa izango da. Gobernuak bost urteko iraupeneko nahi zuen eta sindikatuek hiru urtekoa, baina prest agertu dira lau urtetarako adosteko.

Gobernuko zerbitzu juridikoen eta ekonomikoen eman ondoren, apirilaren hasierarako sinatuta egongo da akordioa.

## LAB eta ELA euren kabuz euskaragatik

Hitzarmenaren negoziazio prozesuan Afapna, CCOO, CSI-CSIF, EILAS eta UGT sindikatuak elkarrekin daude, LAB eta ELA ez, ostera. Negoziazioan beraien kontutik jarraitzea erabaki zuten hitzarmenean ez delako euskararen neurririk aipatu. Azkenean bi neurri hartu dira. Batetik, ikastetxe batean behin betiko daudenek eta bost urtetik gora daramatzatenek birziklitzeko ikastaroak egin ahal izango dituzte, gehienez bi ikasturtetan. Bigarrenik, ama hizkuntza euskara ez duten D erduko 3 urteko haurrentzat bi orduko laguntza eskolak izanen dira, betiere taldean 20 ikaslelik gora baldin badaude.

**D ereduan, 13 urte dena euskaraz ikasten aritu eta gero, hiru ikasletik batek ez du oinarrizko gaitasuna lortzen.**

**Felix Etxeberria**



## **Eskola Karta aldatzea eskatzeko manifestazioa deitu du Hiru Saretak apirilaren 7rako**

Inor gutxi geratu da pozik Ipar Euskal Herrian Frantziako Hezkuntzak datorren ikasturterako prestatu duen Eskola Kartarekin. Horregatik, Hiru Saretak manifestaziorako deia egin du. Apirilaren 7an izanen da Baionan.

Seaskak, Euskal Haziak eta Biga Bai erakundeek osatzen dute Hiru Sareta, ikastolak, eskola giristinoak eta eskola publiko elebidunak ordezkatuz, hurrenez hurren. Frantziako Hezkuntzak Euskararen Erakunde Publikoan hartu zituen konpromisoak ez dituela betetzen salatu dute. Euskarazko murgiltze eredua eta eredu elebidunaren garapena bultzatuko zituela hitz eman zuen, baina Eskola Kartan ez da horrelakorik islatu. Aitzitik, 27 lanpostu kentzea aurreikusitako du eskola publikotan. Eskola

girstinoei ere ez die laguntzarik gehitu eta ikastolei zazpi lanpostu eta erdi kendu dizkie.

Bestalde, Ikas-Biko lehendakari Thierry Delobelek elkartearen Biltzar Nagusian aipatu zuenez, Ipar Euskal Herrian 150 ikastetxe publiko daude eta horietatik 55 gela dira elebidunak. Guztira 32 zentro dira postu murrizketak jasango dituztenak eta horietako 25 elebidunak dira. Elkartearen iritziz, Lehen Mailako egoera “onartezina” da eta, Bigarren Hezkuntzan ere hutsune handiak daude. Ikas-Bik Paueko Akademia Ikuskaritzarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin bilera bat egitearen premia azpimarratu du.

Max Brisson EEPko lehendakariak adierazi du Kontseilu Nagusiari eta Akademia Ikuskaritzari biltzeko deia egin diela, gai honen gainean solasteko.

Euskal kulturaren aldeko herri artek sindikatuek ere Eskola Karta berztertze eskatu diote Akademia Ikuskaritzari. Euren iritziz, “ezin dira baliatu Frantziako Hezkuntza Ministerioaren irizpideak irakasle lanpostuak banatzerakoan. Frantzian gela bakoitzean egon daitekeen haur kopurua baliatu du Akademiak Ipar Euskal Herriko hiru hezkuntza ereduak irakasle lanpostuak murrizteko, eta erabaki hori abian jarritako hizkuntza politikaren kontra doa”.

Eusko Jaurlaritzak ekainerako aurreikusitako lan eskaintza publikorako deialdia mantentzea erabaki du, sindikatuek 2008rako uztea eskatu dioten arren. Haur eta Lehen Hezkuntzako 1.100 lanpostu eskainiko dira. Urtarriletik bildu gabe zeuden Tontxu Campos Hezkuntza sailburua eta sindikatuak eta martxoak 12an berriz bildu ziren.

Camposek une honetan soilik lan eskaintza publikoari buruz hitz egitea zuen xede, baina sindikatuak ez zitzairen proposamena gustatu, lan hitzarmena oraindik adostu gabe dagoelako. ELA, LAB, EILAS eta UGT sindikatuek lan eskaintza publikoa hurrengo ikasturte arte atzeratzeko eskatu dute, langileek ez dutelako denbora izango azterketak behar bezala prestatzeko. Sindikatuek hainbat irakasleri euren egonkortasuna bermatzea nahi dute, baina ez Hezkuntza Sailak nahi duen moduan, hau da, lan eskaintza publikoaren bitartez eta azterketak eginda. 2011an Espainiko Hezkuntzako Lege Organikoa aplikatuko da eta bitartean Hezkuntza Sailak ez duela irakasleen egonkortasuna bermatu nahi salatu dute sindikatuek. Bestalde, lan hitzarmen berria eta osoa negoziatzea ezinbestekoa berretsi dute. CCOO ez dago gainerako sindikatuekin elkartuta Mahai Sektorialean, baina horrek ere azterketak atzeratzea eskatu du.

# GAIA

## Hizkuntzen marko berria EAEn







**la haurrak Olentzeroren opariaren zain egoten diren adinako egonezinarekin itxaron zaio Tontxu Camposen agerraldiari. EAEko hizkuntz ereduaren proposamen berria aurkeztu du. Batzuentzat opari ona izan da, beste batzuentzat hala-holakoa. Inor gutxik esan du batere ez zaio-la gustatu.**

**Ez da, ordea, bukatuta dagoen oparia eta berehala erabiltzen hastekoa. Oparia amaitu gabe, tresnak eskaini dira eta denon artean osatu behar da. Horretan arituko dira politikariak eta gizarte eragileak datozen hilabeteetan.**

**Hurrengo orrialdeetan duzue *Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa: proposamen berritzailea eta eleanitza XXI. menderako.***

# G

## Hurrengo urratsa: zehaztea

EAEko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hizkuntz eredu berritzailea eta eleanitza proposatu du. Gaur egungo A, B eta D ereduaren ordez eredu bakarra eta malgua ezarriko litzateke ikastetxe guztietan. “Euskara izango da marko berriaren ikas-irakaskuntzaren hizkuntza nagusia” dio. “Praxiak argi eta garbi erakutsi du ikaste prozesuan euskaran murgiltzea funtsezkoa dela komunikazio ahalmenak eskuratzeko, ahozkoak zein idatzizkoak”. Gaztelania ere ikas hizkuntzat hartuko da, erregistro formalak behar bezala ezagutzen direla bermatzeko. Helburua da hezkuntza prozesua amaitzean herritarrek hizkuntza ofizial bietan ezagupen maila nahikoa izatea, hizkuntza batean zein bestean komunika daitezen.

Haatik, ez da eredu elebidunean gelditzen proposamena, eredu eleanitzera jauzi egiten du: atzerriko hizkuntza batean edo bitan komunikatzeko oinarriko ezagupena izatea da xedea.

Helburu horiek denak neurtu egingo dira lehendabiziko aldiz, orain arte ez bezala. Europako Erreferentzia Markoan irizpide batzuk zehaztuta daude eta horiek erabiliko dira: euskara eta gaztelanian B1 maila lortu beharko dute ikasleek Lehen Hezkuntza bukatutakoan, eta B2 maila DBH bukatutakoan. Ingelesa edo frantsesean, aldiz, B1 maila DBHren amaieran.

Beste berrikuntza bat: ebaluazioak egingo dira maila horiek lortzen diren edo ez ikusteko.

Ikastetxe bakoitzak diseinatuko du bere hizkuntz proiektua markoak zehazten dituen helburuak lortzeko. Alde horretatik, autonomia izango dute, baina erdietsi beharreko helburuak eta markoa mugari izanda.

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik aurrera jarri nahi da martxan 2008-09 ikasturtean hasita. Horrela, 10 urteren buruan marko berria ezarrita egingo litzateke.

### Zehaztasunen garaia iritsi da

Proposamena lehen urratsa izan da eta, oro har, alderdi politikoek eta hezkuntza eragileek begi onez ikusi dute. Hemendik aurrera, alderdi politikoen arteko eztabaida hasiko da. Ahalik eta adostasun handiena lortu nahi dute azken proposamenera iristeko.

Horra iristeko, baina, puntu asko zehaztu behar dira, besteak beste euskararentzat zein gaztelaniarentzat proposatzen den B2 maila. Batzuentzat gehiegi da, besteentzat hori behintzat lortu beharrekoa da eta hortik gora posible bada, hobe. Ikastetxeen autonomia eta hizkuntza bakoitzari eskaini beharreko ordu kopurua ere asko zehaztu gabe daude, proposatutako “malgutasuna” dela-eta. Ebaluazioaren inguruan ere aldekoak zein kontrakoak daude. Markoaren arabera, hezkuntza sistemak irakasle elebidunak edo eleanitzak behar ditu, eta oraindik lanean diharduten guztiak ez dira elebidunak. Irakasle Eskoletako erdal adarretatik ateratzen direnek ere ez dute euskarazko eskolak emateko gaitasunik izango.

Euskaldun eleaniztunak sortzeko, hizkuntzaz gain, euskal gizarteko eta kulturako adierazpenak barneratu behar dituzte ikasleek, eta horretarako, euskal curriculum funtsezkoa da. Gai horri ere heldu beharko zaio.

Baliabide asko behar da.

Gizarteak aldaketa eskatzen zuen eta horretarako ateak ireki dira. Orain proposamena zehaztea eta neurri zehatzagoak hartzea eskatzen du. Baliabideak jarriz gero, gizarteak lagunduko du. Badu horretako borondatea eta go-goa.



# Proposamen berria

## Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn Proposamen berritzailea eta eleanitza XXI. menderako

**Honako hau da Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean aurkeztutako proposamena.**

### Baztertze politiketatik integrazio politiketara

- Hamarkada luzeetan euskararen kontrako eta euskara bera baztertzeko legeak eman ostean, Gernikako Estatu-tuak hau aldarrikatzen du: *“Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelania-rekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea”* (6.1 artikulua).

- **Euskararen kontra eragiteko** herri agintek hezkuntza sistemari eragin zioten inplikazio negatibo eta baztertzailetik, inplikazio hori positiboa izatera pasatu zen Eusko Legebiltzara eta Eusko Jaurlaritzara eratzean. Inplikazio positibo horrek gizarte integratua erraztu zuen, elebitasun partekatuan afektiboki eta modu eraginkorren elkarrekin bizitzeko gai dena. Egungo legediak zentzu hori du, eta argia eta zehatza da, horri dagokionez:

- *“Jaurlaritzak, ikasleagoari derrigorrezko eskolaldia bukatzerakoan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko adina ezagutuko ditueneko segurantzaren emateko xedezko neurriak hartu eta euskeraren giroa bermatuko du, barne nabiz kanpo-ekintzapidetan eta Arduralaritzako ihardun eta agirietan euskera agizko adierazpide eginez. Euskeraren erabilpena arauzkotzeko abenduaren 24ko 10/1982 Oinarritzako Legearen 17. artikulua.*



### Baztertze politiketatik integrazio politika barne hartzaileetara

- *“Euskara eta gaztelania nabitatez sartuko dira euskal eskola publikoan gara daitezen irakaskuntza-programetan, bi hizkuntzen abozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez obizko barremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili abal izan daitezten”*. Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 18. artikulua.

- Eusko Jaurlaritzak eta horren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beste hizkuntza batzuen ezagutza ere sustatu dute, eta EAE aintzindaria da hirueledun ikaskuntzan, derrigorrezko eskolaratu beharreko etapetan; horrela, bada, aurrea hartu die Europeak herrialdeetako orientazioei eta proposamenei (*Eleaniztasunerako Estrategia Marko Berria*, Brusela, 2005.11.22).

### 25 urteko esperientzia ebaluatzen

- Derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan EAEko hizkuntza ofizial bat zein bestea jariatuz eta oso ondo hitz egiten dutenen kopurua nahiko handia

da, eskolaren inplikazioari esker. Horien artean, askok eta askok hirugarren hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna ere badu.

- Aurrerapausoak handiak izan dira; hala ere, oraindik ez da lortu indarrean dauden ereduetan ikasi duten herritar gehienek integrazio eleanitza. EAEko herritarrak ordezkaturik Eusko Legebiltzarrak eman dituen legeak eta elkarren osteko gobernuak emandako neurriak ez dira espero bezain eraginkorrak izan, eta gazte guztiek ez dute lortu geure erkidegoko hizkuntza ofizial bietan jariatuz aruntez komunikatzea derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan.

- Hezkuntza, eskola, beharrezkoa da, baina ez da nahikoa edozein herritar gure gizartean hizkuntza biez baliadagin. Hezkuntza beharrezkoa da hizkuntza bion ezagupena orokortzeko. Baina ez da nahikoa hizkuntzon erabilpena bermatzeko; izan ere, gizarte gune (familia, kalea, auzoa, “kuadrila”, aisia, lana, teknologia berrikuntzak, laguntza zerbitzuak...) bakoitzaren jokaeraren arabera lortuko da hori.

- Egindako ebaluazioen arabera, gaztelaniaz komunikatzeko gaitasuna bermatua dago indarrean dauden eredu guztietan (eredu bateko eta besteko ikasleen arteko aldeak oso txikiak dira; dena dela, horrek ez du esan nahi, bereziki kasu batzuetan, ez dela komeni kalitatea hobetzen jarraitzea).

- Egoera bestelakoa da euskararen kasuan, egindako ebaluazioek argi erakusten dutenez.

- Hainbat ebaluazio egin eta emaitzak alderatu ondoren, emaitzak ikusi-



ta egoeraren zergatiak aurkitu eta hobetzeko estrategiak proposatu behar ditugu:

\* Zenbat eta gutxiago erabili euskara irakaskuntza hizkuntza bezala, orduan eta hizkuntza gaitasun gutxiago euskaraz. Korrelazio hori ageri-agerikoa da. Ikasi-irakatsi prozesuan euskaraz murgilduta emandako denbora oso erabakiorra da, gaur arte egindako ebaluazioen arabera.

\* EAEko hizkuntza ofizialetan murgiltzeko aukerak oso desberdinak dira. Ikasle asko eta askorentzat, eskola da euskaraz murgiltzeko kontestu nagusia euskararen ikaskuntzan. Gauza bera gertatzen zaie hirugarren edo laugarren hizkuntza ikasi nahi duten ikasleei.

### EAEko gaurko hezkuntza erronkak integrazio eleanitzerako

-Europako Batzordearen estrategia markoak eleaniztasuna erraztu nahi du solidaritatearen ikuspuntutik asmo handiko erronka baten helburutzat: *“Europako batasuna kontzeptu bonetan oinarritzen da: “batasuna aniztasunean”: kultura, obitura, sinesmen... eta hizkuntzen aniztasuna. Batasunean, hogei hizkuntza ofizial ez ezik, bertako hirurogei hizkuntza inguru ere hitz egiten dira, eta bertoko ez diren hainbat hizkuntza ere bai, etorkinen komunitateenak, hain zuzen. Aniztasun horrek ageri-agerian uzten du Europako Batasuna ez dela desberdintasunak bat egiten dituen “arragoa”, etxe partekatua baino, eta bertan gure ama hizkuntzak, hamaitak txo izan arren, aberastasun iturri dira eta solidaritatea eta elkar ulertzea lantzeko lurra (Europako Batasuna. 596 komunikazioa. Eleaniztasunera-ko Estrategia Marko Berria. Brusela, 2005.11.22).*

- *Europako erreferentzia marko* horren izpiritua aplikatzerakoan, hiz-

kuntzak EAEko egungo egoera historiakoan ikasi, irakatsi eta ebaluatzeko, erronka zehatzak planteatzen dizkigu.

- Elkarbizitza demokratikoki partekatuak bateragarri egin behar ditu norberak askatasunez erabakitzeko eskubidearen errespetua, herritarrei dagokienez, eta gainerako herritarrek ere eskubide hori izateko berme solidarioa. Demokrazian herritarrek elkarri pertsonen askatasuna eta berdintasuna eskatzen diote, baina hori aldi berean aplikatzeak **erronka bereziak** dakartza gurea bezalako aniztasun maila altuko gizarteetan; izan ere, hizkuntza ofizial bien (euskara eta gaztelaniaren) arteko lehentasunak eta beste batzuen (batez ere ingelesa) arteko lehentasunak markatzeko, funtzionalitate komunikatiboko irizpideak erabiltzen dira, bai eta irizpide sinbolikoak eta identitate adierazpenekoak ere.

- Aukera pertsonal diferenteak dituzten pertsonen arteko bizikidetzak libreak, euren sentimendu eta lehentasunezko hizkuntza erabilerei dagokienez, eskatzen du Euskadin elkarreragiten duten pertsonen eraginkortasunez errespetatzea herritar guztiek hautatzen duten erabilera hizkuntza.

- Gainera, egungo euskal gizartearen bizikidetzak integratuaren helburuak izan behar du pertsona guztiek, gutxienez, gaitasun pasiboa izatea lurraldeko hizkuntza ofizial bietan.

- Konpromiso hori euskal hezkuntza sisteman aplikatu behar da bereziki; izan ere, eremu pribilegiatua da errespetu proaktiboaz baliatzeko, eta irakasleen zatirik handiena elkarbizitza eleaniztaren eredu dugu.

- Euskal herritarrek erkidegoko hizkuntza ofizial biak ez ezik, atzerriko beste hizkuntza batzuk (ingelesa eta, behar izanez gero, frantsesa edo beste hizkuntza bat) ere jakin behar dituzte, maila pertsonal, profesional eta inte-

**Ikastetxe, herri edo hiri bateko ikasle guztiak antzeko sistema batean eskolatu-ko dira, eta etapa bakoitzeko helburuek ikasle guzti-guztietei eragingo die, ikasleen hizkuntza jatorria edo hezkuntza sisteman sartu diren unea gorabehera.**

lektualean garatu nahi badute. Horrela, bere herritik gai izango dira sare orokorrekin konektatzeko, eta, era horretan, errazagoa suertatuko zaie ezagupenak eta esperientziak gunerik aurreratuenekin trukatzeara.

### Egungo erronkei aurre egiteko printzipioak, esperientziak eta erreferentziak

- Egun, EAEko herritarren integrazio eleaniztaren aldeko printzipioak erabat hedatuta daude; horrez gain, geure esperientzia propioak ditugu, bide arrakastatsuek eta antzuek erakusten digutenak; halaber, aditurik onenek bermatzen dituzten orientazioak ere oso lagungarri ditugu, eta Europako eremurako, *Europako Erreferentzia Markoan* jaso dira.

- *Europako Erreferentzia Markoak* oinarri bateratua eskaintzen du hizkuntza programak, kurrikulu orientazioak, azterketak, eskuliburuak... jorrazteko Europa osoan. Halaber, modu integratzailean deskribatzen du zer egin behar duten hizkuntza ikasleek hizkuntza batean komunikatzen ikasteko, bai eta zein ezagupen eta gaitasun garatu behar duten eraginkor jokatzeko. Deskripzio horrek hizkuntzaren kultura

# Proposamen berria

kontestua ere hartzen du bere baitan. Horrez gain, *Erreferentzia Markoak* hizkuntza mailak ere deskribatzen ditu, ikasketa fase bakoitzean eta bizitza osoan zehar ikasleak izan duen aurreapena egiazatzeko. (*Hizkuntzen ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa*, Council of Europe Modern Languages Division. Strasbourg, 2001, 12. or).

## Euskal hezkuntza sistemaren helburuak

- Euskal hezkuntza sistemaren helburu nagusietako batek izan behar du: "Euskal gizarte anitzean eta mundu konplexuan elkarrekin bizitzen irakastea".

- Hezkuntza eleanitza: gure gazteen errealizazio pertsonalean laguntzeko, mundu gero eta globalago batean euren garapenean gaitzeko eta mundu bihozbera, bidezko, solidario, aurreratu eta jasangarriagoa eraikitzen lagun diezaiegun. Euskal curriculumaren globalizazioa indartu behar da. Era berean, ikasleak hainbat hizkuntzatan gaitu behar dira. Hori dela eta, euskaraz eta gaztelaniaz jakin behar dute, eta Europako estratergiari jarraiki, euskal hezkuntza sistemaren helburu izan behar du atzerriko hizkuntza bat edo gehiago irakastea. Hori guztia egin behar da, beti ere jakinik euskara eta gaztelania hizkuntza ofizialak direla eta euskara, mementoz behintzat, egoera txarragoan dagoela.

## Marko eleanitz berriaren printzipioak

- **EAEko hizkuntza ofizial biei dagokienez:**

- Elkarbizitza afektibo eta eraginkorraren balioetan hezteko EAEko bi hizkuntza ofizialei modu desberdinean

atxiki zaizkien pertsonak.

- Unean-unean gizarte eta hezkuntza baldintzarik onenak sortzea, derrigorrezko hezkuntza prozesua amaitzean herritarrek hizkuntza ofizial bien ezagupen maila nahikoa izan dezaten eta euren artean hizkuntza batean zein bestean komunika daitezten.

- **Beste hizkuntza batzuei dagokienez:**

- Une oro gizarte eta hezkuntza baldintzarik onenak sortzea, euskal herritarrek gai izan daitezten, gutxienez, beste hizkuntza batean komunikatzeko oinarrizko ezagupenak lortzeko.

## Hezkuntza politika eleanitz eraginkorra gauzatzeko baliabideak

- **Eskola populazioarentzat oinarriko estandar bateratuak finkatzea**, hala bi hizkuntza ofizialei nola beste hizkuntza bati/batzuei dagokienez.

- **Maila bakoitzeko ikasleen** (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen duten ikasleen) **ebaluazio bateratu objektiboa** (egun berean eta ordu berean).

- **Hizkuntzetan ikastea** (hizkuntzak eurak ikasteko baliabide nagusia).

- Ikasketako hizkuntzen sailkapena moduluka egitea, eremu bakoitzaren beharizan eta berezitasun zehatzen arabera, talde bazterketa ekiditeko, helburu bateratuak lortzeko dagokienez:

\* Irakasleak prestatzea, ezarritako ikasketa hizkuntzetan programak garatzeko.

\* Hizkuntza bakoitzean ikasteko materialak garatzea.

\* Ikastetxe guztien esperientziak elkarren artean trukitzea, horietatik etengabeko hobekuntzan ikasteko (banku handi bat sortuta, esperientzia horiek eraginkortasunez aprobetxa-

tzeko, ezagupenaren eta jokaeraren kudeaketa teknika eta metodoak aplikatuta).

- Hezkuntza ekimenen zeharkako integrazioa sustatzea elkarbizitza eleanitzera bideratutako beste erakunde (instituzional edo sozial) batzuekin, herritarrek beren aukera askatasunez erabaki dezaten.

## Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko marko berritzailea

Proposatzen den markoa **berritzailea** da arrazoi hauengatik:

- Gure hizkuntza politika eta Europako Erkidegoarena bateratzen ditugu, helburuei eta baliabideei dagokienez. Zentzu horretan, Europako Hizkuntzen Erreferentzia Markoan sartzen da proposamena:

\* Malgua da: era askotako egoeretan erabiltzeko modukoa da.

\* Irekia: zabaldu eta hobetzeko modukoa da.

\* Dinamikoa: erabileratik hartutako esperientziari erantzuten dio.

- Adierazpen helburuetatik helburu operatiboetara pasatzen da; helburuok "ahalmen/gaitasun" terminotzat hartu behar dira, eta hiritartasun terminotzat ere bai (ez dira helburu "didaktikoak", eskola jarduerara mugatuak, gizarte eremuko helburuak baino, derrigorrezko hezkuntzak erantzun beharrekoak). Euskal Herriko historian lehen aldiz, bi hizkuntza ofizialen gaitasunean lortu beharreko helburuak finkatzen dira.

- Atzerriko hizkuntz(ar)entzat helburu zehatzak finkatzen ditu, hizkuntza ofizialentzat egiten duen bezalaxe.

- Gizarte kohesioa bultzatzen du.

- Ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen du, XXI. mendeko euskal gizartearen kultura arteko marko berrian.



### Adostua izanez gero, Eusko Legebiltzarrak hizkuntzak ikasi eta irakasteko EAEko marko berriaren Legea onartuko du.



#### Ikasi eta irakasteko marko eleanitza

##### Eleanitza:

- Egungo ereduak testuinguru elebidunean oinarritzen dira. Beraz testuinguru eleanitzaren beharrezanean erantzuten dien marko batera pasatu behar da. Ondorioz, gure hezkuntza-sistema gizarte eta hizkuntza egoera berrira moldatu behar da; izan ere, Euskal Herria egoera horretara moldatzen ari da eta dagoeneko egoera hori bizi du.

- Hizkuntza ofizial bien -hizkuntza biok komunikatzeko bide izan daitezkeen- eta atzerriko hizkuntza baten edo biren ezagupen nahikoa lortzera bideratua.

- Derrigorrezko hezkuntzaren barruan lortu beharreko helburu operatibotzat helburu hauek finkatu beharko lirateke:

Gaztelania: B2-DBH/B1-LH

Euskara : B2-DBH/B1-LH

Ingelesa/frantsesa: B1-DBH

- Markoak maila horiek gainditzeko asmoa du, hiritarrak etengabeko hezkuntzako prozesuetan sartzen diren neurrian, beren pertsona eta gizarte hezkuntza edo lanbide garapenean (hurrengo hezkuntza testuinguru batzuetan, irakaskuntza formal, informal edo ez-formalaren bidez).

- Euskara izango da marko berriaren ikas-irakaskuntzaren hizkuntza nagusia. Hau da, euskarak irakas hizkuntza integratzailea izan behar du. Izan ere, gaurko egoeran (eta aurreikusi daitekeen etorkizunean), gaztelanientzat ez da ezer aldatuko, eta praxiak argi eta garbi erakutsi du ikaste prozesuan euskararen murgiltzea funtsezkoa dela komunikazio ahalmenak eskuratzeko, ahazkoak zein idatzizkoak; gainera, egiaztatuta dago ikasleak urtean bizitzaren %17 baino ez duela pasatzen ikastetxe batean ikasten.

- Gaztelania ere, ikas hizkuntzat hartuko da, beraren erregistro formalak behar bezala ezagutzen direla bermatzeko.

- Atzerriko hizkuntza/k modu osagarrian landuko dira, atzerriko hizkuntza bera eta atzerriko hizkuntza horretan ikasita, proposatutako maila lortzeko, baina hizkuntza ofizialetarako jarritako helburuak murriztu gabe.

##### Bilbatzailea /Sendoa:

- Gernikako Estatutuaren 6. artikularen arabera, *“Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoa-ren ñabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz,*

*eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte”.*

- Euskararen erabilpena araukoetzeko oinarritzeko Legearen 17. artikularen arabera, Jaurilaritzak neurriak eman behar ditu “elebitasuna” benetako izan dadin.

- Bestetik, praktikan ezin da hizkuntzak ikasteko eta irakasteko 796 marko izan, hau da, ezin da ikastetxe beste marko izan.

- Horretarako, proposatutako helburuak lortze aldera, EAEn hizkuntzak ikasi eta irakasteko markoaren egitura orokorra arautuko dute Eusko Legebiltzarrak eta Eusko Jaurilaritzak.

##### Malgua:

- Ikastetxeek hizkuntza proiektua (eleanitza) diseinatu, eta hezkuntza-proiektuan txertatutako dute, erkidegoko erakundeek zehaztutako markoaren barruan proposatutako helburuak lortzeko.

- Irakas hizkuntzat hartzen den hizkuntza kopurua handitu ahal izango da (hizkuntza ofizial bien lehentasuna ahaztu gabe), marko orokorrekiko; horretarako, kontuan hartuko dira ikasketa prozesuan lortutako emaitzak, jardute eremuaren gizarte eta hizkuntza ezaugarriak, ikasleen ezaugarriak ...

# Proposamen berria

## Gizarte kohesioaren bultzatzaile:

- Ikastetxe, herri edo hiri bateko ikasle guztiak antzeko sistema batean eskolatuko dira, eta ulertu behar da etapa bakoitzeko azken helburuek ikasle guzti-guztiei eragingo dietela, ikasleen hizkuntza jatorria edo hezkuntza sisteman sartu ziren unea gora-behera (hizkuntza marjinazioko prozesurik gertatzeko arriskua ekidin behar da, helburu bateratuei dagokienez).

## Ebaluazioaren garrantzia

- Hezkuntza sistemaren edozein helburuk ebaluazio mekanismoak erabili behar ditu, lorpenak neurtu eta prozesuak egokitzeko. Hizkuntza gaikuntzako prozesuetan, berriz, ebaluazio hori behar-beharrezkoa da; izan ere, nahi izan den ikaskuntzaren lorpenek baino ez dituzte ondu behar erabilitako baliabideak.

- Ikastetxe bakoitzean ikaskuntza metodologiak eta programak era malguan erabiltzeko, behar-beharrezkoa da lortutako emaitzen ebaluazio zorrotzak egitea.

- Ebaluazioaren helburua sistema hobetzea da, lortu nahi diren helburuetara egokitzeko. Horrenbestez, bereziki zainduko da ebaluazioa, beste helburu batzuetara bidera ez dadin (emaitzen erabilera partziala edo/eta interesatueta).

- Aurretiaz finkatutako mailak lortzeko neurri zuzentzaileak sartzeko balioko behar izango dute ebaluazioen emaitzek. Era berean, ikastetxearen beraren, familien, Hezkuntza administrazioaren eta Eusko Legebiltzarraren jardute politika bideratzen lagunduko dute.

## Nola ebaluatu helburuen betetze maila?

- Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikerketeko Erakundeak (ISEI-IVEIk) egun

eta ordu berean proba berdina egingo die ezarritako maila bereko talde guztiei (LH eta DBHko azken etapetakoei) EAeko ikastetxe guztietan. Proba horren bidez, ikasle bakoitzak lortutako ezagupen maila ebaluatuko da.

- Horrez gain, tarteko diagnosi ebaluazioak ere egingo dira (LH-4/DBH-2), ikastetxe guztien ikasleen bilakaera ezagutzeko. Horrela, bada, azken helburuak lortzeko, plangintzan egokitzen edo doiketa egokiak egiten lagunduko dieten adierazleak izango dituzte ikastetxeek.

- Bestalde, ikastetxeek beren ebaluazio politika sartu ahal dute hizkuntza proiektuan, eta ikaslerik nagusienek, berriz, autoebaluaziorako tresnak erabili ahal dituzte, esaterako, Dialang ([www.dialang.org](http://www.dialang.org)), Europako Batzordeak sustatua eta autoebaluazioa 14 hizkuntzatan (ez dago euskaraz) egiten laguntzen duena.

## Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren (HUISen) papera

- Irakasleen komunikazio gaitasunak erkidegoaren hizkuntza ofizial biantz hobetzea bultzatuko du (eta atzerriko hizkuntzan, atzerriko hizkuntzako irakasleena).

- Irakatsi eta ikasteko praktika onak orokortzea.

- Hizkuntza ofizial bien irakaskuntza sendotzeko baliabide osagarriak jarriko ditu.

- Antolatze eta parte hartze antolakuntza era berriak eskainiko ditu, erakunde jarduerari dagokionez, eta hizkuntza normalizatzeko plan trinkoekin jarraituko du: NOLEGA/Ulibarri (hainbat erakunderen artean sarean lan eginez), didaktika aholkularitzako asmo handiko programa bat indartuz.

- Irakasle elkarbizitza afektibo eta eraginkorra bultzatuko du hizkuntza ofizial biekiko.



- Prestakuntza teorikoa indartuko du, praktikaren azterketari lotu, hausnarketa bideak zabaldu eta beste eragile batzuekin batera aztertuta: unibertsitateak, irakasleak prestatzeko ikastaroak, ebaluazio erroak diseinatzea...

- Eskola eremuak ez diren beste gizarte, ekonomia eta kultura elkarte batzuekiko eta erakunde publiko eta pribatuekiko koordinazioa bultzatuko du, euskal herritarrek hizkuntza aukera askatasunez erabaki dezaten gizartean: kirol eta kultura ekintzetan, aisialdian, ikastaroetan, txangoetan...

## Araudia aldatzea

- Adostu izanez gero, Eusko Legebiltzarrak hizkuntzak ikasi eta irakasteko EAeko marko berriaren Legea onartuko du.

- Ezarritako markoa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak garatuko luke, dekretu eta agindu egokiak emanez.

## Aldaketa prozesua

- Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan jarriko litzateke martxan marko berria. Egungo ereduaren sistemaren hasitako ikasleak, berriz, sistema berarekin jarraituko dute graduatu arte. Dena den, horrek ez du esan nahi ikastetxeen hizkuntza proiektuetan ezin dela egotera bikoitza kontuan izan eta jarduerak ezarri, egungo ereduaren sistemako ikasleak Marko Eleanitz berriak proposatutako helburuetara hurbiltzeko.

- Marko berria 10 urtean ezarriko da, eta epe hori amaitzean ebaluazio orokorra egingo zaio.



### Europako Erreferentzia Markoan ezarritako erreferentzia maila bateratuak Autoebaluaziorako taulak

		• A1	• A2	• B1	• B	• C1	• C2
<b>ULERTZEA</b>	<b>Entzumena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz hitz arrunteak eta oso oinarrizko espasideak ulertzeko nitaz, nire familiaz eta inguruko gauzez, jendeak astiro hitz egiten duenean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz lexiko eta espaside erabilienak ulertzeko zuzenean dagozkidan arloetan (adib. oinarrizko informazioa nitaz, nire familiaz, erosketez, inguruaz, lanaz). Iragarki eta mezu labur, sinple eta argietan gai naiz ideia nagusiaz jabetzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz ideia nagusiak ulertzeko, hizketa argi eta estandarra denean, eta gaiak ezagunak direnean: lana, eskola, aisialdia, etab. Ulertzen ditut gaur egungo gaiak edo interes pertsonaleko edo profesionaleko gaiak dihardunenen telebista edo irrati saioretako ideiak nagusiak, baldin eta poliki eta argi hitz egiten badute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz konferentzia eta hitzaldi aski luzeak ulertzeko. Era berean, argudio konplexuak ere ulertzen ditut, baldin eta gai gutxi-asko ezaguna badut. Ulertzen ditut telebistako albistegiak eta eguneko gorabehera buruzko saiogehienak. Gai naiz hizkuntza estandarrean ematen diren film gehienak ulertzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz berbaldi luzeak ulertzeko, oso garbi egituratuta ez badago ere edo erlazioak oso esplizituak izan ez arren. Telebista programak eta filmak neke handirik gabe ulertzen ditut.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ez dut inolako arazorik edozein hizketa ulertzeko, ez zuzenekoa, ezta komunikabide-etakoa ere, baita jatorrizko hiztunen abiaduran hitz egiten dutenean ere, baldin eta bere hizkera moduarekin ohi-tzeko denbora badut.</li> </ul>
	<b>Irakurmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz hitz eta izen oso ezagunak ulertzeko, baita esaldi oso sinpleak ere. Adibidez, iragarkietan, posteretan edo katalogoetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz testu labur eta oso sinpleak irakurtzeko. Gai naiz informazio jakin eta aurreikus daitekeena eguneroko dokumentu arruntetan bilatzeko, esate baterako iragarkietan, prospektuetan, menuetan eta ordutegietan. Gai naiz gutun pertsonal labur eta sinpleak ulertzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz hizkera arruntetan idatzitako testuak edo nire lanari buruzkoak ulertzeko. Gai naiz gertaeren deskribapena edota sentimenduen eta desioen azalpena ulertzeko gutun pertsonaletan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz gaur eguneko gaiak buruzko artikulak eta txostenak irakurtzeko, egileak jarrera jakin bat edota ikuspuntu berezia erakusten duenean. Gai naiz gaur eguneko hitz luzeak literaturaren testuak irakurtzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz gertakarietan oinarritutako testuak edo literatura testu luze eta konplexuak ulertzeko eta estiloak bereizteko. Gai naiz artikulak espezializatuak eta argibide tekniko luzeak irakurtzeko, nire eremukoak ez badira ere.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz edozein testu mota irakurtzeko, baita abstraktuak eta egituratuak edo hizkuntzaz zailak direnak ere. Adibidez, eskuliburuak, artikulak espezializatuak edo literatura lanak.</li> </ul>
<b>HITZ EGITEA</b>	<b>Ahozko elkarreragina</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz modu sinplean komunikatzeko, baina solaskidearen menpe nago, hark prest egon behar baitu nik esandakoa astiro errepikatzeko, birformulatzeko edo nik nahi dudana esaten laguntzeko. Gai naiz berehalako premiei edo oso gai arruntei buruzko galdera errazak egin eta erantzuteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz komunikatzeko jarduera eta arlo ezagunetan, informazio trukea zuzena eta sinplea denean.</li> <li>Elkarrizketa osoa jarraitzeko adina ulertzen ez badut ere, gai naiz informazio truke labur-laburrak egiteko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz hizkuntza mintzatzen den herraldara egindako bidaiak batean gerta litekeen egoera gehieni aurre egiteko. Gai naiz, presatuta gabe ere elkarrizketan parte hartzeko, gaiak ezagunak direnean, interes pertsonalekoak edo bizimodu arruntekoak (familia, aisialdia, lana, bidaiak, albisteak...).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz jatorrizko hitzuntz batekin normal mintzatzeko, berezotasun eta erraztasun nahikoarekin. Gai naiz elkarrizketan era aktiboan parte hartzeko eta nire iritzia azaldu eta defenditzeko egoera ezagunetan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz natural eta jarioz hitz egiteko, espasideen bila nabarmen luzatu gabe. Badakit hizkuntza gizarte edo lanbide erlazioetan malgu eta eraginkor erabiltzen. Badakit neure ideia eta iritzia zehatz adierazten eta neure adierazpenak beste solaskideenekin trebeziaz lotzen.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz ahalegin handirik egin gabe, edozein elkarrizketa edo eztabaidatan parte hartzeko. Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditut. Zailtasunen bat badut gain naiz atzera egiteko eta hutsunea trebeziaz konpontzeko solaskidea ia konturatu gabe.</li> </ul>
	<b>Irakurmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz esaldiak eta espasideak erabiliz nire bizilekua eta jende ezaguna deskribatzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz esaldiak eta espasideak sora batean erabiltzeko honelakoak era sinplean deskribatuz: nire edo beste norbaiten familia, nire bizimodua, ikasketak, oraingo edo lehengo lana.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz esaldiak era sinplean josteko, honelakoak deskribatzearen: esperientziak, gertaerak, ametsak, itxaropenak eta helburuak. Gai naiz nire iritzi edo proiektuen arazoak eta azalpenak laburki emateko. Badakit istorioak kontatzen, liburuen eta filmen argumentuak azaltzen eta horiek nigan sortutako erreakzioa adierazten.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Badakit zehatz eta argi hitz egiten nire intereseko gai askori buruz. Gai naiz gaur eguneko gorabeheren gainean nire ikuspuntua adierazteko, aukera desberdinen alde onak eta txarrak azalduz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz deskribapen argiak eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiek lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz deskribapen argi eta xeheak egiteko gai konplexuei buruz, horiek lotutako gaiak integratuz, zenbait puntu garatuz eta berbaldia egoki amaituz.</li> </ul>
<b>IDAZTEA</b>	<b>Idazmena</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz postal laburrak eta errazak idazteko, esaterako, oporretakoak. Gai naiz nire datu pertsonalak galdetegi batean idazteko. Adibidez, izena, nazionalitatea edo helbidea hoteleko erregistroan.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz berehalako premiei buruzko ohar eta mezu sinpleak idazteko. Gai naiz gutun pertsonal oso sinpleak idazteko, adibidez eskerak ematekoak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz testu sinpleak eta koherenteak idazteko, gai ezagunen edo interes pertsonalekoen gainean. Gai naiz gutun pertsonalak idazteko, nire esperientziak eta irudipenak adieraziz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz nire intereseko gai askoren inguruan, testu argiak eta xeheak idazteko. Gai naiz idazleren bat edo txosten bat egiteko informazio jakin bat adieraziz edota iritzi baten aldeko edo kontrako arazoak emanez. Gai naiz gutunak idazteko, gertaerei eta esperientziei ematen dieldan garrantzia nabarmenduz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz testu argi eta ongi egituratuak osatzeko, neure ikuspuntua luze-zabal adieraziz. Badakit gai konplexuak adierazten gutun, idazlan edo txostenetan, garrantzizkoen iruditzen zaizkidan puntuak azpimarratuz. Gai naiz hartzaileari egokituak estiloa erabiltzeko.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gai naiz testu argiak jarioz idazteko, estilo egokian. Gai naiz gutun, txosten edo artikulak konplexuak idazteko, argudioak egitura logiko eta eraginkorren bidez antolatuz, irakurleak puntu nagusiak ulertu eta gogoan har ditzan. Gai naiz idazlan profesionalak edo literatura lanak idatziz laburtzeko eta kritikatzeko.</li> </ul>

# Proposamen berria

## Irakasleen prestakuntzan aldaketak

### Irakasleentzako hainbat inplikazio

- Proposatutako marko berriaren oinarria, neurri handi batean, ia irakasle guztietan kalitatezko elebitasuna lortzea da, hizkuntza ofizialei dagokienez. Irakasleria horren zati batek, berriz, hizkuntz gaitasun nahikoa egiaztatu beharko du hirugarren hizkuntza batean, ikasgaiak atzerriko hizkuntzan emateko.

- Ingelesari dagokionez, urte honetan zehar ISEI-IVEI azterlan bat burutzen ari da, DBHko lehenengo eta bigarren zikloko ikasleek eta Batxilergoek lortzen duten ingeles maila ebaluatzeko. Kontuan hartu beharko da Ingelesaren Sarrera Goiztiarra Programarekin 4 urterekin hasi ziren lehenengo 96-97 ikasturtean egin zutela eta datorren ikasturtean amaituko dutela derrigorrezko hezkuntza.

### Hizkuntza ofizialen gaitasunei dagokienez

- Gaztelaniaren hizkuntza gaitasuna bermatuta dago eskola publiko eta itunpeko eskolako irakasle guztien kasuan.

- Egoera bestelakoa da euskarazko hizkuntz gaitasunarekin. Datuen arabera, eskola publikoko irakasleen %80k egiaztatu dute 2. HE eta %6k 1. HE. Bestalde, itunpeko ikastetxetan, % 63k egiaztatu dute 2. HE eta % 4k, berriz, 1. HE.

- Marko berria progresiboki ezarrita, sare bietako irakasleen euskarazko hizkuntza gaitasuna bidezko modu batean hobetzen lagunduko luke. Urterotero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1.081 pertsona liberatzen ditu irakastordu barnean; horre-

zaz gain, euskaraz lan egiteko gaitasuna hobetzeko, irakastorduz kanpora 3.283 irakaslek ikasten dute.

### Estimazioak

**Haur eta Lehen Hezkuntza eskola publikoan:** marko berria 2008-09 ikasturtean ezartzen hasten bada Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan eta 2013-14 ikasturtean amaitzen bada ezarpena, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntz gaitasuna, hurrenez hurren:

2008-09 ikasturtea: + 258

2009-10 ikasturtea: + 75

2010-11 ikasturtea: + 41

2011-12 ikasturtea eta hurrengoak: 0

Kopuru horiek kalkulatzeko, aldagarri hauek hartu dira kontuan: aurreikus daitekeen ikasgelen kopurua, 2. hizkuntz eskakizuna egiaztatu gabe duen irakasle bitartekoen kopurua eta jubilazio aurreikuspenak.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskola publikoan:

DBHn ere ikasturtez ikasturte ezarriko da sistema berria: 2014-15 ikasturtean hasi eta 2017-2018an amaituko da ezarpena. Beharri-zanak antzemateko irizpide bera erabilita, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntz gaitasuna, hurrenez hurren:

-2014-15 ikasturtea: + 216

-2015-16 ikasturtea: 0

-2016-17 ikasturtea: + 709

-2017-18 ikasturtea: + 772

### Haur eta Lehen Hezkuntza itunpeko ikastetxeetan:

marko berria 2008-09 ikasturtean ezartzen hasten bada Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan

eta 2013-14 ikasturtean amaitzen bada ezarpena, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntz gaitasuna, hurrenez hurren:

2008-09 ikasturtea: + 45

2009-10 ikasturtea: + 120

2010-11 ikasturtea: + 211

2011-12 ikasturtea: + 301

2012-13 ikasturtea: + 385

2013-14 ikasturtea: + 467

Kopuru horiek kalkulatzeko, aldagarri hauek hartu dira kontuan: aurreikus daitekeen ikasgelen kopurua, 2. hizkuntz eskakizuna egiaztatu gabe duen irakasle bitartekoen kopurua eta jubilazio aurreikuspenak.

### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza itunpeko ikastetxeetan:

DBHn ere ikasturtez ikasturte ezarriko da sistema berria: 2014-15 ikasturtean hasi eta 2017-2018an amaituko da ezarpena. Beharri-zanak antzemateko irizpide bera erabilita, irakasle gehigarri hauek egiaztatu beharko lukete euskarazko hizkuntza-gaitasuna, hurrenez hurren:

2014-15 ikasturtea: + 363

2015-16 ikasturtea: + 578

2016-17 ikasturtea: 0

2017-18 ikasturtea: 0

- Eskolak ingelesez edo Ingeles eskolak ematen dituzten irakasleak 1.198 dira eskola publikoan eta 830 itunpeko ikastetxeetan. Frantsesko datuak hauek dira: 65 irakasle eskola publikoan eta 30 bat itunpeko ikastetxeetan.

- Atzerriko hizkuntzetan lortutako hizkuntz gaitasunari buruz ISEI-IVEIk egingo duen azterlanean oinarrituta, behar izanez gero, antzemandako beharri-zanetara egokituko dugu proposamena.





## Eskolak Euskaldundu herri ekimenaren balorazioa

**Eskolak Euskaldundu herri ekimenak EAEko Hezkuntza Sailak egindako proposamenari buruzko honako balorazio hau egin du.**

**Hezkuntza Sailak lege marko bat proposatu du** soilik eta marko hori **eduki zein neurri zehatzik gabe** gelditzen bada eskubideak bete gabe eta eskolak euskalduntzeko **pauso eraginkorrik eman gabe gelditzeko arrisku bizia dago.**

Haatik, proposamenaren balorazio kritikoa egiten badugu ere, **badu elementu positiborik**, positibotzat dugu, helburuetan elementu neurgarria planteatzea, **B2 maila lortzearen derrigor-tasuna** adieraztea, alegia.

Herri ekimenetik Hezkuntza Sailari hainbat argibide eta neurri zehaztea eskatzen diogu:

1. **“Euskara hizkuntza nagusia”** izango dela dio proposamenak. Baina zenbat ikasgai eman beharko dira ezinbestean euskaraz? Proposamen berriak % 40 euskaraz, % 30 gaztelaniaz eta gainerako % 30 ingelesez emateko aukera ahalbidetzen du. Gaur egun indarrean den B ereduan ere ikasgai gehienak euskaraz ematen dira, baina soilik hiru ikasletik bakarra eta zonalde euskaldu-netan euskalduntzen da. **Euskara hizkuntza nagusi eta trinkoa** izan behar da, garai bateko D eredia, baina indarturik aplikatzea ezinbestekotzat dugu, EAEko ikasle guztiak euskalduntzeko. Nola euskaldundu, bestela, Gasteizko, Bilboko, Donostiako, Irungo edo Ezkeraldeko ikasleak?

2. **Irakasle euskaldunak** behar dira

ikasle euskaldunak nahi baditugu. Horretarako, kontratatzen diren irakasle guztiak euskara jakin behar dute; Irakasle Eskoletatik erdal adarrak desgertu behar du; irakasleak euskalduntzeko edo euskara maila hobetzeko ikastaroetan arreta berezia jarri behar da.

3. Sistemaren lehen ebaluazio osoa ikasleek 12 urte dituztenean egingo da, hemendik 10 urtera. Bitartean malgutasunaren eta autonomiaren izenean ikastetxe ugari legea ez betetzeko aukera paregabea dute. Gure ustez, **ebaluazio sistema eraginkorra** funtsezkoa da B2 maila lortzeko. Gure proposamena, ebaluazio jarraia egiteaz gain, baliabide egokiak eskaintzea da, metodologia eta pedagogia eredu aurrerakoiak aplikatzea posible izan dadin.

4. Proposamenak ez dio ezer orain arteko sisteman matrikulatuak dauden ikasleez. Horiek ere kaltetuen zakuan geldituko al dira? **Aurten 3 urterekin matrikulatu diren haurrek** euskara ezagutzeko eskubidea dute eta eskolak bermatu behar dien arren, legeak ez du ezer esaten. Proposamen orokorraren baitan, dozenaka mila ikasle horientzat irtenbideak jartzea beharrezkoa dela uste dugu.

5. Euskara soilik ikastetxeko hizkuntza izateko arriskua aipatzen du hainbatek, **erabilera** ere garrantzitsua dela, eta guk ere berdin pentsatzen dugu. Horregatik, neurri nagusi bat proposatu nahi dugu: eskola euskalduna. Eskola barnean eta eskolari loturik egiten den ekimen orok (eskola kirola, ikastaroak) euskaraz izan beharko luke. Hortarako hezkuntzako langile

guztiak euskaldunak izan behar dute. Gainera, **eskola euskaldunak hizkuntzaz eta edukiz** euskalduna izatea esan nahi du. Bigarren horretarako euskal kultura eta identitatetik abiatutako hezkuntza prozesu integrala jasotzeko **Euskal Curriculumaren** aplikazioan ikusten dugu gakoa. Eskolak bere esku dagoen guztia egin behar du euskalduntzeko, baina euskararen berreskurapenerako ezinbestekoa da baita ere **hizkuntza politika nazionala**, integrala eta berria.

Gauzak horrela markoetatik neurrietara eta orokortasunetik zehaztasunetarako bidea egitea eskatzen diogu Hezkuntza Sailari. Orain arteko proposamena ez baita aski eskolak EAEko ikasleak euskalduntzeko. Orain arte egindako lanetik baztertu gaituzte eragile eta sindikatu gehienek. Hemendik aurrerako lanetan gure iritzia kontuan hartzeko eskaria egiten diegu ardura-dunei. Goiko neurriak proposamen zehatzetan txertatzea ezinbestekotzat dugu. Aukera historikoaren aurrean gaudela. Hurrengo asteotan egiten denak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikasleak euskalduntzea edo euskara ez ezagutzera kondenatzea esan nahiko du.



# koldo tellitu

## *ELKARRIZKETA*

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakaria

“Belaunaldi berriak euskal curriculumama, herri honen gabezia historiko handi hori, aurrera ateratzeko erronka izango du”



“Guk oraindik ere denbora asko “galtzen” dugu gure nortasunaren, euskal senaren aldeko proiektuak ateratzen. Oraindik ere aitzindaritza lana behar da eta horretan jarraitzeko asmoa daukagu.”

Gasteizko Olabide ikastola-ko bere lehen andereñoak ez zuen irudikatu ere egingo EHIK Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari izatera iritsiko zenik bere ikasle Koldo. Baina hala da.

Ez da zuzenean ikasle izate-rik lehendakari izatera pasa, ordea. Urte hauetan zehar ikastolen mugimenduan aktiboki parte hartu du. Semeak Leioako Betiko ikastolan hasi bezain pronto proposatu zioten ikastolako lehendakari izateko. 93ko gatazkak zatitutako ikastola zen orduan Betiko eta arlo juridikoan zituen ezagutzak ikusita egin zioten eskaera hura, Zuzenbide ikasketak egindakoa baita. Orduan hasi eta oraindik ere jarraitzen du.

Garai beretsuan hasi zen BIEEn, Bizkaiko Ikastolen Elkartean. Orain dela bost urte, berriaz, Partaideko lehendakari izendatu zuten, kargua berriki utzi duelarik EHIKko lehendakari izateko.

Gogotsu eta ausart heldu dio erronka berriari, ikastolen mugimenduak, orain arte bezala, ekarpenak egiten jarrai dezan.



**Lau hilabete daramatzazu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakari moduan. Zein dira zure eta Konfederazioaren erronka nagusiak hurrengo urteetarako?**

Barrura begira dauzkagun erronka nagusiak berregituraketa eta Ikastola 2015 plana dira.

Gaur egun daukagun konfederazioaren egitura aldatu egin nahi dugu. Ikastola askotatik eskatu da, kezkatuta baitaude daukagun egitura konplexuarekin. Beraz, hori da nire lehenengo lana eta hasita gaude.

**Zein izango da egituraketa berria?**

Nahiz eta oraindik erabaki gabe daukagun, erakunde bakarra eratzea da gure asmoa, eta batez ere, lehen urrats bezala, egitura kudeatzaile bakarra izatea. Hau da, dauzkagun zerbitzu eta programa guztiak erakunde bakar batetik kudeatzea. Horrekin batera instituzioen eta gizartearen aurrean irudi bakarra aurkeztearen bila joango gara. Gaur egun herrialde bakoitzeko federazioa, erakunde bat izatek aparte, enpresa bat da, bere langileak ditu, bere zerbitzu eta programak... Hori guztia “zentralizatzea” eta irudi bakarra eta ahots bakarra izatea da asmoa.

Herrialde bakoitzean organoren egituraren bat egotea aurreikusten dugu, bereziki ikastolen parte-hartze zuzena sustatzeko. Gure barnean kultura desberdinak daude, esparru administratibo desberdinak... eta hori oso ondo uztartu behar dugu. Sentsibilitateak, lehentasunak... ez dira berdinak. Horregatik, erakunde bakar hori helburu izanda, ondo eta tentuz ibili behar dugu pausoak ematerakoan.

## **Bigarren erronka moduan Ikastola 2015 aipatu duzu. Zer finkatuko duzue plan horretan?**

Ikastolen mugimenduaren lerro edo printzipio nagusiak bildu eta mende honetako lehen hamarkadetako ikastolen ereduak zein den definitu nahi dugu. Azken hausnarketak duela urte batzuk egin genituen eta berriro definitu behar ditugula pentsatzen dugu. Arlo pedagogikoan nik uste dut definizio nagusia euskal curriculumean dagoela eta ondo etorriko zaigu euskal curriculumaren inguruan sustatu dugun barne hausnarketa.

## **Nola doa euskal curriculumaren prozesua?**

Oraindik amaitu gabe dago Kristau Eskolarekin, Sortzen-Ikasbatuazekin, Hezkuntza Sailarekin eta beste arlo batean Udalbiltzarekin lantzen ari garena. Orain azken fase programatikoan hasi gara eta hor euskal curriculum espezifikoa definitu behar dugu: hemengo berezitasunak hor uztartu, erabakiak hartu, ikastola guztien ekarpena jaso... Lan horretan ari gara orain. 2008ko ekaina arte ez dela amaituko aurreikusten dugu. Gainera, presa pixka bat badugu, baina lan hori patxadaz eta ongi egin behar da. Benetan sinestu behar dugu lan hori herritarrena dela eta herritarrek eragile aktiboak izan behar dutela eta haien ekarpenak jaso behar direla. Argi dago horretarako denbora behar dela eta eskatzen duen erritmoa jarraituko dugu. Azken testu batekin amaituko dugu eta hezkuntza eta gizarte eragile guztiak bilduko dituen batzar nagusi batean onartuko da.

## **Eta horren ondoren, zer?**

Bi alderdi daude. Alde batetik, lehenetasunetako bat irakasleen formazioa izango da. Hori guztia martxan jartzea izugarritzko lana izango da, zeren planteatzen ari garen curriculumak ez ditu edukietan soilik egiten aldaketak. Aldaketa nagusia beste toki batean dago: kompetentzia orokorretan eskolaldirako ardatzak ez dira ikas arloak, bizi-tza gutzirako hezkuntzaren xedeak,



hezkuntza kompetentzi orokorrak eta eduki metadiziplinarrak baizik. Irakasleek ikuspegiak edo lan egiteko erak zeharo aldatuko dira.

Beste aldetik, bigarren egiteko materialeri dagokiena izango da. Ikas-materialak eduki berrietara egokitu beharko dira.

Lan dezente dago martxan jartzeko, bai, baina herri honen gabezia izugarria izan da urteetan curriculum propiorik ez edukitzea, zeina behar-beharrezkoa den herri nortasuna edukitzea.

## **Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan curriculum ofizialak berriro egingo dira. Zein eragin eduki dezakete euskal curriculumaren prozesuan?**

Guk, zorionez, ez daukagu eurak daukaten denboraren arazorik. Eusko Jaurilaritzak eta Nafarroako Gobernuak, LOEren eraginez, berehala atera behar dute curriculum ofiziala. Guk zera diogu beti: aukera paregabea dutela gure proposamena ardatz hartuta curriculum ofizialetan uztartzeko eta txertatzeko.

Euskadiko autonomia erkidegoan gurearekin batera sektore publikoko batzuk beste proposamen bat ere egin dute.

Baina, azken finean, lan hori batera egin behar dugu. Zeren, zein da curriculumaren helburua? Herri honetan ondo definitzea zein diren gutxieneko bateratuak edo komunak. Horretarako

elkarlanean aritu behar bada, gu prest gaude curriculum ofizialari gure elkarlana eskaintzeko, eta ezinbestekoa ikusten dugu, gainera. Argi edukita Euskal Herriko ikuspegitik gure curriculumak askoz ere gehiago sakontzen duela. Beste proposamenen ere ideia interesgarriak daudela onartuz, nik uste dut egokiena elkarlan hori lehenbailehen sustatzea dela.

## **Nola bizi duzue publiko-pribatu arteko dikotomia?**

Dikotomia hori gainditzeko Autonomia Erkidegoan eztabaida sustatu dugu azken urteetan eta proposamen bat lantzeko asmoa daukagu.

## **NGB Nazio Garapen Biltzarretik bultzatutako Hezkuntza Akordioak dikotomia hori gainditzeko aurkeztu duen proposamenarekin bat egiten al duzue?**

Organikoki bat egin ez badugu ere, ez baitzaigu eskatu ere egin, jakina da gure ordezkari nagusi batzuek hori parte hartu dutela eta aurkeztu den proposamena interesgarria ikusten dugu. Nik uste dut horrek aurrera jo behar duela. 1993an Autonomia Erkidegoan Eskola Publikoaren Legearen harira egindako sarraskia konpondu egin behar da, hori oso argi dago.

Batzuetan publiko-pribatu kontzeptuak aipatuta tranpa batean jausten gara. Batez ere kontzeptu horien bertsio zaharkituan ari garela. Alde bate-



“Euskalgintzan ikastoletatik asko espero dela uste dut. Indar handia egozten zaigu. Arlo horretan zer edo zer gehiago eman dezakegula uste dut eta inplikazio handiagoa izan behar dugu mugimendu moduan.”

...tik kon-  
tzeptu horiek gaintitu baino gehiago eguneratu beharra dago, batik-bat euskal gizartearen emaitza propioa kontuan hartuta.

Beste alde batetik guk euskal eskola nazionala sustatu nahi dugu eta horren bitartez gaintitu behar dugu dikotomia hori. Geure ibilbide propioa egin behar dugu. Finean, une honetan hemen oraindik indarrean dagoen publikotasunaren kontzeptua estatu frantziarrean Napoleonen garaitik datorren kontzeptua; zentralizazioan oinarrituta dagoena, funtzionarioaren irudian zentratuta dagoena... Nik uste dut herri honetan bide desberdina landu dela urteetan zehar, ekimen sozialarena, eta horri gaur egun oraindik eman ez zaion aitortza zor zaiola. Hori oso garbi daukat.

Publikotik askotan aldarrikatzen da ikastetxeen autonomia, eta ikastolok, zer edo zer baldin badaukagu, bereziki hori da: autonomia. Orduan, bide horretan, non edo non elkar topatu behar dugu sare publikoak eta ikastolok, ez daukat zalantzarik.

Hainbat kontu berraztertu egin beharko dira. Esate baterako, zein izan behar den administrazioaren papera, nola koordinatu eta planifikatu behar duen, orain egiten duen moduan ala eragileen parte-hartzearekin? Agian demokraziaren kontzeptua gehiago landu beharko da Administrazioan, sozialagoa izan dadin eta ez hainbeste funtzionariala. Hor mundu bat dago, baina bereziki klabea zera da: Aurreko kontzeptuak burutik kentzea. Eztabaida horretan beste ikuspegi batekin sartu behar dugu. Ingalaterran, Suedian, Holandan... badira beste eredu batzuk eta

guk geurea topatu behar dugu, publikotasunaren kontzeptu bat eta bakarra ez baitago munduan.

Oso ondo ezagutzen dudan beste esparru bat gizarte segurantzeta eta pensio mundua da. "...hemengo eredu" esan ohi du jendeak, baina hemengo eredu ere ez da bakarra munduan. Beste eredu batzuk ezagutzea ona da, bereziki publikotasunaren kontzeptu hori edo Administrazioak hezkuntza sistema antolatzeko daukan modua ez dela bakarra ikusteko. Beraz, egin dezagun geure bide propioa.

### **Prest al gaude horretarako?**

Uste dut memento nahiko egokia dela, eta jaiotze tasa gorantz badoa, hobeto, lagunduko du. Zeren azken urteotan daukagun lehiak, aurreiritziek eta abar jaiotze tasarekin harremana dutela uste dut. Zeren matrikulazioarekin arazoak egonez gero, bakoitzak bereari begiratuko dio, eta hori arazoa da. Matrikulazio garaia iristen denean denok aipatzen ditugu geure berezitasunak, hoberenak garena... zergatik? Oraindik jaiotze tasa, nahiz eta gorantz joan, ez doalako hainbeste.

### **Historikoki ikastolek paper garrantzitsua jokatu dute euskararen arloan. Zer paper jokatu dezakete hemendik aurrera?**

Iritzi publiko orokorrean horrela identifikatzen bagaituzte ere, hori egia izanik, egia mugatua da. Eskolaren eremuan euskararekin batera beste hainbat ekarpenen aitzindari ere izan da eta da ikastola. Baina euskararena ontzat emanda, nik uste dut motor izaten jarraitzea egokitzen zaigula oraindik. Zorritzarrez, memento honetan oraindik ere badira gure hezkuntza sisteman euskaraz ez dauden esparru garrantzitsuak, Lanbide Heziketa kasu. Lanbide Heziketako euskararen egoera tamalgarría da, bereziki Bizkaian, Araban eta Nafarroan. Euskal curriculumak lagun dezake horretan, baina oraindik ere guk apustua egiten dugu euskararen erabilera bultzatzeko programekin: Euskaraz Bizi, bertsolaritza, esku pilo-

ta... Guk oraindik ere denbora asko "galtzen" dugu gure nortasunaren, euskal senaren aldeko proiektuak aurrera ateratzen. Oraindik ere aitzindaritzana egin beharra dago eta horretan jarraitzeko asmoa daukagu.

### **Herrigintza arloan azken urteetan ikastolak ez direla hainbeste inplikatu entzun izan da. Zer iritzi duzu horren gainean?**

Guretzat herrigintza klabea da, gu herritik jaio baikin. Hor bi mutur egon daitezke: alde batetik mugimendu osoa eta bestetik ikastola bakoitza.

Ikastola bakoitzak, herri gehiengutan, izugarriko inplikazioa dauka arlo guztietan: Jaietan, euskalgintzako eragileekin elkarlanean... eta hori oso nabaria dela uste dut.

Mugimendu osoa aipatzen badugu, beste bi aurpegi daude: Bata hezkuntza eragileekin eta bestea euskalgintzan. Nik uste dut hezkuntza arloan hor aritu garelako azken urteotan, bereziki curriculumarekin. Hor eduki ditugun solaskideekin elkarlan polita egon dela uste dut. Baina bestean, euskalgintzaren arloan, zeredo zer gehiago eman dezakegula uste dut. Gainera, euskalgintzaren arloan ikastoletatik asko espero da. Hori ere horrela da. Indar handia egozten zaigu.

Egia esan, azken boladan hezkuntza arloko erronkak hain indartsuak izan dira, ze horretan joan zaigu denbora eta arreta. Euskalgintzako eragileak eurak ere azken denboraldian hezkuntzara begira egon dira hezkuntza ereduak direla-eta, curriculum dela-eta...

Baina bai, herrigintza arloan inplikazio handia dagokigu mugimendu moduan ere. Hori da nire asmoa eta dagoeneko hasita gaude. Adibidez, Euskararen Gizarte Kontseiluaren zuzendaritzan taldean dagoeneko bagaude. Gutxikagutxika inplikazio hori handituko dela uste dut.

### **Gurasoen parte-hartzea ikastolen ikurretako bat izan da. Gaur egun parte-hartzea "krisian" dagoela**



### **esaten da. Nola bizi da hori ikastoletan?**

Beste ezer baino lehen esan behar da ikastoletan gurasoak "jabeak" direla eta horrek nahitaez ekartzen du inplikazioa. Ikastetxe publikoetan gurasoen inplikazioa egon daiteke, baina oso esparru mugatua. Nahiz eta guraso asko inplikatu eta gogo handia izan, zoritxarrez autonomia txiki hori dela-eta eta administrazioerikiko dependentzia hori egonda, jada jatorriz mugatua da esku-hartzea. Kristau eskoletan antzekoa gertatzen da. Erligio-orden edo kongregazioa izaten da titularra, jabea, eta hor ere gurasoen paper mugatua da, nahiz eta txalogarria izan gurasoek duten partaidetza arlo batean zein bes-

tean, ekimenak aurrera ateratzeko.

Ikastoletan gurasoen partaidetza nahitaezkoa da. Pentsa, edozein ikastoletan, artezkaritza kontseiluan hamar-hamabost guraso egon behar dira derrigorrez, eta hilean behin edo bitan biltzen dira ikastolaren estrategia orokorra finkatzeko, arazo edo planteamendu guztiak aurrera ateratzeko. Beraz, jatorriz, gurasoen partaidetza nahitaez berezia da.

Gero, ia ikastola guztietan daude taldeak eta horiek elikatzen dute artezkaritza kontseilua: talde ekonomikoa, eskolaz kanpoko taldea, mantenimendu taldea, pedagogia taldea... eta normalean talde bakoitzean lauzpabost guraso daude. Orduan, jada gurasoen

**“ Hezkuntza  
Sail guztiek lerro  
argiak zehaztu behar  
dituzte etorkinen  
inguruko hezkuntza  
politikan. Hori ongi  
definitu behar da, zeren  
oraingo definizio ezak  
fenomeno bat  
sorrarazten du:  
ikastetxe publiko,  
pribatu zein  
kontzertatuak izan,  
krisian daudenek dute  
etorkin kopuru  
izugarria. Eta A eredura  
bideratzen dira.  
Fenomeno hori ezin da  
kasualitatea  
izan.**

”

nukleo sendo bat sortzen da: 40 guraso daude inplikazio izugarriarekin.

Noski, gero jauzi bat dago. Egia da ikastoletan orokorrean gurasoen erdiak-edo ez duela bizitzen horrelako intentsitatearekin. Baina beste erdiak bizitzen duena oso intentsitate eta ardua handiarekin bizitzen du.

Hego Euskal Herriko ikastola guztiak, Gipuzkoako bi izan ezik, kooperatibak gara, gurasoen edo langileen kooperatibak, eta gurasoek dute hitza eta erabakia normalean.

Dena dela, aipatu behar da partaidetza desberdina dela gaur egun. Gutxiago joaten dira txosnan txandak egitera, esate baterako. Beste era batera parte hartzen dute. Beste ikastetxe batzuetan kanpora ateratzen diren zerbitzuak guk oraindik gurasoekin elikatzen ditugu. Adibidez, matrikulazio kanpaina egiteko, komunikazio munduan dabilen gurasoren bat ikastolan daukazu eta beren bitartez egiran duzu. Beste era batekoa da, baina inplikazioa handia da. Zenbat eta behar gehiago egon, gehiago inplikatzeko dira. Beharra dagoenean, jendea mugitzen da.

### **Urteak joan eta urteak etorri, Hezkuntza Legerik ez daukagu.**

Hala da, bai EAEn, bai Iparraldean eta bai Nafarroan. Faltan botatzen dugu. Hankamotz dago hiru esparru administratiboetan. Legeek esparru publiko baina ez dute arautzen eta hortik kanpo dagoena akordio bitartez, dekretuen bitartez eta abar arautzen da. Sistema osoa arautzen duen lege bat beharrezkoa da. Eta lege horretan gure euskal eskola nazionalaren ildo nagusiak jasoak egon beharko lukete.

### **Zer jaso beharko luke lege horrek?**

Hasteko, ondo zehaztu beharko luke zer den zerbitzu publiko eta kontzeptu horren barruan nork ematen duen zerbitzu hori eta nork ez, zein finantzazio izango duten, zeren araberak...

Guk beti esaten dugu zerbitzu publiko bat ematen ari garela eta, gainera, zerbitzu hori administrazioaren planifi-

kazioaren barruan dagoela. Hau da, oraintxe bertan ezin ditugu nahi ditugun gelak zabaldu. Orduan, administrazioak ezartzen dituen baldintza guztiak betetzen baldin baditugu nortasun jakin bat izateko, pentsatzen dugu finantzazio osoa eduki behar dugula arlo pedagogikoan. Finantzazio horren truke administrazioetik ezartzen diren baldintza guztiak bete behar ditugu. Hori argi daukagu. Gu izan gara lehenak ebaluazio ekonomikoak eskatzen eta zenbakiak mahai gainean jarrita ditugu diru publiko non gastatu den ikusteko. Hori klabea da, bai gure ikastoletan, bai kristau eskoletan eta bai publikoetan. Gardentasuna eta dirua zertan erabiltzen den denei eskatu behar zaie.

Bestetik, legeak bidea eman dezake ikastetxe publikoetan aldarrikatzen den autonomia garatzeko. Bide bat jorratu behar da eta hor elkar aurkitu dezakegu. Esperantza hori daukat. Nik ez dut sinesten orain daukagun eredu benetan zenbait jende barneratuta edo euren bezala sentitzen duenik. Ez dut sinesten. Batzuek edukiko dute, baina beste askok ez daukagu.

### **Ikastoletan etorkin gutxi ei daude.**

Bai zenbait ikastoletan, eta bai zenbait ikastetxe publikotan eta kristauetan. Etorkinak krisian zeuden zentroetan ari dira pilatzen. Bilbon, ospe handiko eskola kristauetan ia ez dago etorkinik; aldiz, auzoetako ikastetxean ia ez dugu bilbotarrik topatzen, biak kristau eskolak izanda. Publikoan gauza bera. Prentsan agertutako artikulua baten arabera, Iruñerriko lau ikastetxetan % 65 etorkinak dira. Joan D eredu eskaintzen duten eskola publikoetara... eta ez dago etorkinik. Euskaraz irakasten duten eta matrikulazio oso ona duten ikastetxeetan ia ez dago etorkinik. Nola da posible? Hori nonbaitetik bideratuta dago, bestela ez da posible.

### **Zein da ikastolen jarrera etorkinekiko?**

Herritarrek gara eta herritarrekiko konpromisoak betetzen ditugu. Herri honen erronketako bat da etorkinak



ondo integratzea gure herrian eta gu horretarako prest gaude. Gure ikastoletan ateak zabalik daude, ez dugu inongo diskriminaziorik egiten.

Baina memento honetan euskal gizartean zerbait txarto egiten ari gara. Planteamendu asko egon daitezke eta egon behar dute, baina Hezkuntza Sail guztiek lerro argiak zehaztu behar dituzte jendeak jakin dezan zein den etorkinen inguruko hezkuntza politika: banatu behar diren edo ez, ikastetxe bakoitzean topeak egon behar diren edo ez, askatasun osoa duten aukeratzeko nola joan behar duten... Horrek argi egon behar du, ondo definitu behar da, zeren orain indefinizioa baitago eta aipatu dugun fenomenoak ikusten ari gara: Ikastetxe publiko, pribatu zein kontzertatuak izan, krisian daudenek dute etorkin kopuru izugarria. Hori bistan dago. Eta beste aldetik, A eredura bideratzen ari dira, D ereduan oso-oso gutxi ikusten dira. Fenomeno hori ezin dela kasualitatea izan, uste dut.

Horregatik, Hezkuntza Departamentuek planifikazio argi bat egin behar dute etorkinekin zer egin behar den eta nola jokatu behar den zehazteko eta arauak argi egoteko. Bestela, oso erraza da "ikastolek ez dut hartzen" eta horrelako aipamenak egitea. Publikako D ereduak ere oso gutxi hartzen ditu. Hori konpondu behar da.

### **Urte gutxiren buruan irakasle asko erretiratuko dira eta berriak sartu. Aurreikuspenik edo plangintzarik egin al duzue?**

Ez irakasleak soilik, federazioetan lanean diharduten eta ikastolen mugimenduan dauden teknikari asko ere ez daude oso urrun erretirotik. Agian ez da txarra izango curriculumak eskatuko duen txip aldaketa egiteko. Zeren frogatuta baitago behin adin batera helduta txipak ez direla erraz aldatzen. Alde horretatik begiratuta, agian ez da aldaketa txarra izango. Belaunaldi berriak euskal curriculum eta herri honek duen gabezia hori aurrera ateratzeko erronka izango du.

Dena dela, bai administrazioak eta



bai gainerako sareok, denok, egon behar harko genuke kezkatuta fenomeno horrekin. Urte batzuetan ikastetxe batean lau edo bost pertsonak urtero hartuko dute erretiroa eta asko da. Gainera, gure kasuan, pertsona horiek garai gogorak bizi izandakoak dira. Hil ala biziko egoera haiek beste indar bat ematen zuten. Orain kudeaketa profesionalizatuagoa da eta beste erronka batzuk daude. Garai bakoitzak bere erronkak ditu.

### **Irakasle berriak edo gazteak errazago ulertuko al dituzte ikasleak eta haien egoera berriak?**

Bada, seguraski bai. Haurrak eta hurremanak jorrazteko dituzten formula berriak ulertzen ez baditugu, ez dugu ezer lortuko. Agian irakasle gazteek horretarako erraztasun handiagoa izango dute. Messengerrak, blogak, mugikorrak... beste harreman mota bat sortu dute eta hori, lehenengo eta behin, ezagutu egin behar dugu. Irakasle askok ahalegin hori egiten dute eta horiek arrakasta handiagoa izaten dute. Gure seme batek gaurko sistema politikoen eta antolaketaren inguruko lan bat aurkeztu behar zuen Gizarte ikasgai DBH 2. mailan eta Interneten dokumentazioa lortu eta gero powerpointarekin ari zen prestatzen aurkezpena sekulako interesarekin. Horrek zer esan nahi du? Irakasleak berrikuntza hori sartu duela, egokitu egin dela eta ikasleek hori interes gehiago jarri dutela gra-

patutako orrietan baino.

Ikasleen mundua ezagutu eta ulertu egin behar dugu. Gustuko dituzten gauzak ez dira munduko onenak izango, baina eurenak dira. Gure garaian ere gure gurasoek ez zuten ulertuko punkarekin genuen jarrera eta guri gus-tatu egiten zitzaigun. Orain gauza bera, ulertu egin behar da. Ulertu eta hezkuntza prozesuetan erabili.

**Autorik gabeko eguna ez, autorik gabeko urtea bizitzen dut urtero. Ez da ekologista militante moduan hartutako erabaki kontziente, bizitzako zirkunstantziak eramandako egoera baizik. Baina onartzen dut gaur egungo bizimoduan eta gizartean arraro gerta litekeela EHIko lehendakaria garraio publikoaz iristea bere hitzorduetara.**

**Aitak, istripu baten ostean, autorik ez gidatzea erabaki zuen, eta horrek kultura bat sortu zuen etxean.**

**Gaztaroa Gasteizen pasa nuen eta gasteiztarren artean ez da hain arraroa. Gasteizen autoa zertarako? Ez da behar, dena dago bertan. Gasteizko koadrilan, 23 urte gaz, inork ez zeukan gida baimenik.**

**Lan egiteko ez daukat arazorik garraio publikoarekin, bereziki hiri-buruetara joateko.**

## Turingo (Italia) haur eskoletan ikasten

### Bilboko Eskurtze institututik joanda

Haur Hezkuntzako praktikak egitera Italiara joan ziren Bilboko Eskurtze institutuko lau ikasle. Leonardo Da Vinci bekak erraztu zien aukera, eta Turingo Haur Eskoletako zuzendari Battista Quinto Borghi doktoreak ere bai, noski. Hark eman zizkien ikasleei ahalik eta baldintza hoberenetan ikasteko erraztasunak.

Han ikasitakoa, profesionalki nahiz pertsonalki, oso aberatsa izan da, eta horren lekuko dira Iratxe Etxebarriaren eta Eneritz Atutxaren ondorengo artikulua.



**Eneritz ATUTXA**

ESKURTZE INSTITUTUKO IKASLEA

Hasieran hainbat kezka generamatzan gurekin, baina guztien artean bat zen nagusia: zergatik ez ote gara Reggio Emiliara joango? Ordura arte entzundako zein irakurritako guztiak bertara joatera bideratzen baikintuen. Dena dela, Turinera iritsi eta handik gutxira ahaztu genuen Reggio Emiliara joan behar hori, ikusi baikenuen Turinen geunden zentroetako hezkuntza eredutik sobe-  
ra genuela ikasteko.

Behin hara heldutakoan, bakoitza

## “Hezitzaileek haurraren gaitasunak duten arretak zirrara sortu zidan”

*asilo nido* edo haur eskola desberdin batean kokatu gintuzten. Niri Turin erdialdean dagoen *asilo nido Piazza Cavour* suertatu zitzaidan.

*Asilo nido* haur eskolak 0-3 urteko haurrentzat soilik diren heinean, 3 urte betetakoa beste eskola batera joan beharra daukate haurrek, *escuola elementaler*a.

Piazza Cavour haur eskola bi gela nagusitan dago banatuta: 4 hilabetetik urte eta erdi pasatxora arteko gela, *laktanteak* deritzona, eta beste gela batean adin hori eta *escuola elementaler*a joan arteko tarte osatzen dutenena.

Eskola honetako gauzarik aipagarriena, eta oso interesgarria iruditzen zaidana, “figura de riferimento” da, hau da, atxikimendu irudia. Haurra eskolan hasi baino hamabost egun lehenago hezitzailea haren etxera joaten da (gurasoek hala nahi badute) haren familia, ingurunea, gustuko duena eta ez due-

na... ezagutzera, eskolatzeko prozesua ez dadin hain gogorra izan. Azken finean, hezitzaileak gurasoen eta eskolaren arteko zubi-lana egiten du, bera izango baita haurrarentzat erreferentziadun hezitzailea haur eskolan pasatuko dituen orduetan.

Beste alde batetik, eguneroko jardunean, hainbat ekintza eskaintzen zaizkie haurrei: irinaren eta buztinaren manipulazioa, jolas heuristikoa, urarekin jolastea, hirian zehar paseotxoak, museoetara bisitak, euripean ariketa desberdinak egitea.... Egunero hiru edo lau ekintza ematen zaizkie aukeran haurrei, eta beraiek aukeratzeko dute eskaintza horretatik zertara jolastu edo zerekin gozatu nahi duten.

Jakina denez, kasu batzuetan hezitzaileak berak bideratzen du haurraren jolasa.

Alor honetan, ezin esan gabe utzi garbitasunaren gaia. Haurrak tenpera-

**Ez nuen behin ere sumatu neke edo asperduraren seinalerik, ez behintzat haurren aurrean. Ikustekoak ziren haurren eta hezitzaileen arteko elkarriketak.**

rekin, buztinarekin edo irinarekin dela, sarritan zikintzen ziren. Kasu horietan, hezitzaileak, inolako arazorik gabe, haurra dutxatzen zuen eta arropak aldatzen zizkion. Horrela, bada, esandaiteteke haurraren jarduna guztiz askea zela ezagutza prozesu horretan; zikintzea ez zen oztopo.

Ekintza horiez guztiez gain, eskolatik at beste hainbat aukera dituzte: ludoteka, laborategian (gai zehatz baten inguruan egiten diren ekintzak; harearekin esperimintatu, adibidez) eta liburategietan antolatutako ekintzak. Horrekin lotuta, esan beharra dago zentro hauetan ez direla haurrentzako jarduerak soilik egiten, gurasoentzako jarduerak ere egiten dira. Guraso zein neba-arreba edota guztiek batera egin ditzaketen ekintzak izan daitezke, esate baterako, ipuinen irakurketa, haurrei zuzendutako masaje ikastaroak...

Dena dela, aipaturiko ekintza mordoa egunez egun ikusteak zeharo harritzen baninduen ere, benetako zirrara sortu zidana hezitzaileen haurrenganako arreta izan zen. Arreta esaten dudanean bere osotasunean ari naiz: hezitzaileek ez dute memento edo une bakar bat ere pasatzen uzten haurrari azalpenik eman gabe, edozein gauzak du bere zergatia, bai gatazka bat sortzen denean eta baita zoriondu behar denean ere. Ez nuen behin ere sumatu neke edo asperduraren seinalerik, ez behin-



Ibilbidea hirian zehar.

tzat haurren aurrean. Ikustekoak ziren haurren eta hezitzailearen arteko elkarriketak, bai jolasean, bai eguneroko bizitzako gauzez ere: amama ez bazen gaia, egunean zehar egindako ekintzaren bat edo eskolako beste haur baten kasketaldia izan zitekeen. Haurrekin errespetu osoz jarduten zuten elkarriketa etengabe.

Gauzak horrela, esan beharrik ez dago hemen ere horrelako hezitzaileak egongo direna, baina memento ez zait parean tokatu horrelakorik, ezta nire gelakideei ere. Behintzat ikasgelan eduki ditugun hainbat iritziren elkartrukean eta izandako esperientziak

kontuan hartuz, ez du inork maila horretarainoko dedikaziorik aipatu.

Artikulutxo hau amaitzeko, bertako hezitzaile batek esandakoa aipatu nahi nuke: "haur bat eskolara datorrenean, motxila txiki batekin dator. Motxila txiki horretan bere bizitza laburrean bizi izandakoak ekartzen ditu, hortik ateratzen ditu bere iri eta haserreak. Guk, hezitzaileok, haur hori errespetu osoz hezi behar dugu bere ingurua kontuan hartuz. Haur bakoitzaren ibilbidean oihal bat ehuntzen dihardugu, bertan geratuko dira islaturik gaintitu beharreko oztopo eta garaipenak".

Molto grazie, Cristina Bruneto.





## Iratxe ETXEBARRIA

ESKURTZE INSTITUTUKO IKASLEA

Badira gauza batzuk bizitza osoan ahazten ez direnak, eta nire kasuan, horietariko bat da Turingo (Italia) Asilo Nido El Cerchion 1-3 urteko haurren gelan izandako hiru hilabeteko esperientzia. Bertara hurbiltzeko arrazoia Haur Hezkuntzako goi mailako ziklo praktikak burutzea izan zen. Eskurtze institutuak eman zigun aukera hori niri eta beste hiru kideri, Leonardo Da Vinci bekaren bidez. Bertan, sekulako bizipenak igarotzeko aukera aurkeztu zitzaigun. Inolako duda barik, hegazkina hartu eta aspaldian Italiako hiriburu izan zen Turinera hurbildu ginen.

Bertan ikusi eta ikasitakoa laburtea ezinezkoa da, ordu arte nik bizitako esperientzia erabat desberdina zelako han bizitakoarekin alderatuta. Baina zerbaitek bereziki atentziora eman bazidan, egiten ziren ekintzak izan ziren; eta ez lantegiak batik bat originalak zirelako (gorputzarekin margotu, yoga, urarekin esperimentatu...), baizik eta bilatzen ziren helburuek eta haur hezitzaileen arteko harreman sanoek haurren segurtasuna eta ezagutza bilatzen zutelako.

Hasteko, haurren hezte prozesuan punturik garrantzitsuena adin desberdineko haurrek batera haztea dela esan beharra dago (1-3 urte). Horrela, zaharrenek txikienean garatze prozesua arintzen dute eta gazteenek handiengan arduratsukoak izateko metxa eta laguntasunaren garrantzia pizten dituzte. Oinarria baldin badugu, adin desberdi-

# “Haur bakoitzak bere burutapenak ditu, dena da posible”

nekoen elkarreraginak garatze aberasgarriagoa sortzen du haurren, eta gu bide horretan ia-ia ikusle soil baino ez gara bihurtzen. Hezitzaileak ekintza aurrera eramateko materialak jartzen ditu eta haurrek manipulazioaren eta esperimentazioaren bitartez jorratzen dute lantegia. Hezitzaileak laguntzaren bat eman diezaieke haurrei ideia berriak emanez, baina sekula ez du esango “hau txarto eginda dago”, ez baitago eredu bat kopiatu beharrik. Haur bakoitzak bere burutapenak egiten ditu, eta guztia da posible: ez dago zikintzeko beldurrik, arropak alda daitezkeelako; egun batean haurrek ez badu gogorik ekintza bat egiteko, posible da bere kasa ibiltzea gainerakoak molestatzen ez baditu; beste ekintza bat egitera joateko aukera dago, bertan gustura ez badago. Guztia dago onartua ondokoari min ematen ez zaion bitartean eta errespetuan bizi diren artean.

Haurrek guk uste baino gauza gehiago egiteko gai dira, baina utzi egin behar zaie egiten, ahalik eta muga gutxien jarrita; erortzen bada altxatuko da, eta min hartzen badu, badaki negar egiten. Behar dutena da jakitea norbait izango dutela ondoan laguntzeko, horren beharra izanez gero. Horrek segur-

tasuna emango die eta trebetasun gehiago garatzeko aukera izango dute.

Zer egiteko dugu hezitzaileok honetan guztian? Bada, haurrari bere ideiak, kezak, beharrak, sentimenduak... kanporatzen laguntzen dion pertsona izan behar dugu. Maitasun osoa ematen diogu haurrari besarkatuz, musukatuz, ondo hitz eginez eta EZ gutxi erabiliz. Zeren giza harremanek hartzen baitute protagonismo osoa, eta koloreak, zenbakiak edota ezkerria eta eskuina zein diren ikasteko astia izango dute geroago ere. Haurrek haur denean gozatzeko eta disfrutatze-ko beharra eta eskubidea du.

Bukatzeko, zera esan beharra dut: Servais Eskolako (Asilo Nido “El Cechio”) hezitzaileek sendotasun osoz dioten moduan, ez dela Reggio Emilia haurrei zuzendutako proiektu berriak eta onak egiten dituen herri bakarra. Beste herri batzuek ere lan berean dihardute, haiek baino baliabide ekonomiko gutxiagorekin eta lanean jarraitzeko gogo handiarekin. Beraz, irakurleok, jakin dezazuela inoiz *Città Di Torinora* hurbilduz gero, ibilalditxo probetxagarri bat egin dezakezuela bertako edozein Asilo Nidotan eta denbora gutxian ohartuko zarete kontakatu dizuedan guztiaz. ●



Haurrak jolas librean.

## Eskolako Agenda 21 programa munduan zehar (eta III) Euskal Herrian



**Jose Manu GUTIERREZ**

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

**Munduan zehar bidaiatu eta gero, etxera bueltatuko gara Eskola Agenda 21 programaren egoera aztertzeko. Baldintzak, ikusiko dugunez, zeharo desberdinak dira lurraldeen arabera.**

### **Iparraldea**

Ipar Euskal Herrian Hezkuntza Ministerioak bultzatzen duen *Agenda 21 d'establisements scolaires* egitasmoan ez dago ikastetxe bat bera ere.

### **Nafarroa**

Nafarroan Eskoletako Tokiko Agenda 21 programa garatzeko gida bat egin zen 2006. urtean (Bartzelonako eta Euskadiko gidak oinarritat hartuta). Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn garatzeko proposamena da. Ingurumen Sailak bultzatzen



**Jon BENITO**

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

du. Planteatzen dituzten faseak hauek dira:

- 1.- Konpromisoaren sinadura (udala eta eskola)
- 2.- Informazioa eta sentsibilizazioa
- 3.- Ingurumen Batzordea
- 4.- Aurre-diagnostikoa (azterketa orokorra gai bat aukeratzeko)
- 5.- Diagnostikoa (curriculum proiektua eta programazioak, hezkuntza proiektua, ikastetxeko azpiegiturak eta hezkuntza komunitatearen ohiturak)
- 6.- Ekintza Plana
- 7.- Ebaluazioa eta jarraipena (adierazleak: Europako adierazle komunitan eta Nafarroako adierazleetan oinarrituta. Ikastetxeen arteko jardunaldi eguna)
- 8.- E-mailzen komunikazioa
- 9.- Parte-hartzea (besteak beste: udal foroan parte hartzea, ikasle ohiek



**Ritxi HERNANDEZ**

INGURUGELAKO 2006-05eko IKERKETA TALDEKO KIDEA

ikastetxea erabiltzea giza ekintzetarako...).

Nafarroako gida lau ikastetxek baliatu zuten, baina ez dago garatuta. Egitasmoa da, oraindik ez baitago martxan.

### **Euskal Autonomia Erkidegoa**

EAEren kasuan, *Ekoeskolak*, *Ekologia Eskolara* edo *Eskola Ekologikoak* bezalako programak garatu ondoren, 2003. urtean Eskolako Agenda 21 programa jarri zen martxan 41 zentrotan. Gaur egun 340 ikastetxe baino gehiago dira, ia ikastetxe guztien % 50.

EAEEn programa oso hedatuta dago, heldua da eta ereduia da estatu osorako zein nazioarterako ere.

Lau oinarritzko erreferentzia erabili dira EAEko EA 21 lantzeko:

- *21 Programa* eta izan duen tokiko garapena: *Tokiko Agenda 21 (Hiri*

*Iraunkorren Mugimendua*; hortik sortu zen Aalborg-eko Gutuna).

- *2002-2020 Garapen Jasangarriaren Euskal Ingurumen Estrategia*. Estrategia horretan zehaztutako helburu eta konpromisoen artean, honako hau dago: 2006rako derrigorrezko irakaskuntzako ikastetxeen % 50 programan egotea eta 2012rako ikastetxe guztiak sartzea.

- Autonomia erkidegoaren *Oinarriko Curriculum Diseinua* eta *Delors Txostena: hezkuntza ezkutuko altzorra da*, eta XXI. mendeko hezkuntzari buruz adierazitako lerroak.

- Amaitzeko, *Garapen Iraunkorri buruzko Hezkuntzaren Hamarkada*, 2005-2014 aldirako UNESCO erakundeak martxan jarritako programa.

Eskolako Agenda 21 programaren filosofiak ez du eskolako zereginak ugarituko dituen programa bat eskaintzea bilatzen, baizik eta esparru berri bat osatzea eta esparru horretan garatzen diren esperientzia on guztiak barne hartzea; era berean, ikastetxearen eta ingurunearen kudeaketa iraunkorrarekin erlazionatutako elementuak, curriculumaren berrikuntza eta hezkuntza komunitatearen partaidetza sustatzea bilatzen da. Horrekin guztia-ekin batera, eskolek, ekarpenak eta proposamenak eginez, udalerraren kudeaketa parte hartzea lortu nahi da.

Ondorengo lerroetan programak garatzen dituen faseak eta metodologia azalduko dira:

**1. Hitzarmena.** Programa garatzeko Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak deialdia zabalitzen dute eta diru laguntzak ematen dituzte. Programan parte hartzeko eskola dagoen herriko udalak Tokiko Agenda 21 garatzen egon behar du eta prozesu horretan eskolaren parte-hartzea bultzatu behar du. Egoera horretan dauden udalerrri guztiak *Udalalde 21en* edo *Udalsarea 21en* sartuta daude. Udalak EA 21eko udal teknikariak kontratatuzko konpromisoa hartzen du.

Aipatutako Sailek, udalerriko alkateak eta eskolako zuzendariak Eskola-

ko Agenda 21 gogoz lantzeko eta garatzeko hartzen duten konpromisoa adierazteko hitzarmen bat sinatzen dute. Horrek eskatzen du ingurumenarekiko erantzukizunaren zentzua sustatzea, ingurumenarekin lotuta betebeharrak betetzea eta ingurumenaren egoera, balio demokratikoak eta ingurunearen iraunkortasuna arian-arian eta etengabe hobetzerazuzendutako neurriak hartzea.

**2. Antolakuntza.** Ikastetxeak koordinatzaile bat aukeratu behar du; ordu batzuk ditu bere lana betetzeko (ikasturte hasierako zirkularrak dioen bezala, sare publikoan ikastetxeko irakasle kopuruaren arabera 2, 4 edo 6 ordu izaten dira), eta INGURUGELAK ematen dio prestakuntza (40 ordu) eta aholkularitza bere lana egiteko. Zerbait kasutan ikastetxeetako klaustruetara zabaldu izan da aipatutako prestakuntza.

Ikastetxean **Ingurumen Batzordea** hezkuntza komunitateak parte hartzeko organoa da eta hauxe izan ohi da bere osaketa: irakasleak, langile ez irakasleak, familiak, udal ordezkariak eta, hala badagokio, udal teknikariak; baina, batez ere, ikastetxeko ikasleak, horiek baitira protagonista nagusiak.

Udalerriko edo eskualdeko koordinatzaileen artean bilerak egiten dira. INGURUGELAREN aholkularitza dute aipatutako bilerek eta EA 21 programako udal teknikariek parte hartzen dute.

**Eskolarteko Foroa** sortzen da udalerrri edo eskualde batean EA 21 garatzen duten ikastetxeen artean (hainbat ikastetxetako ikasleek osatutako organoa da eskuarki).

**3. Diagnostikoa.** Ikastetxearen **ingurumen diagnostikoa**: Ingurumen Batzordearen lana da diseinua egitea. Batzordeak adierazten ditu datuak biltzeko eta aztertzeko ardurak edukiko duten taldeak. Agendak lantzen dituen hiru esparruetan egiten da diagnostikoa: curriculumaren berrikuntza, garapen iraunkorra eta hezkuntza komunitatearen parte-hartzea.

**4. Helburuak eta adierazleak.** Diagnostikoa egin eta gero hutsuneak

**“Etorkizunean funtsezkoa izango da programa laguntzen duten erakundeen inplikazio maila areagotzea”.**

eta hobetzeko arloak agertzen dira. Hobetzeko proposamenak eta lehentasunak jartzen dira helburu moduan. Helburuen lorpen maila zehatza ezagutzeko helburu bakoitzari behar diren adierazleak ezartzen zaizkio.

**5. Ekintza plana.** Adierazitako helburuak betetzeko plangintza. Ekipmena, tenporalizazioa eta metodologia zehazten dira aipatutako hiru esparruetan.

**6. Aplikazioa. Ekintza plana** exekutatzeko, hau da, diseinatu diren ekintzak martxan jartzea.

**7. Ebaluazioa.** Programaren exekuzioaren emaitzak **ebaluatzea**; ebaluazioa egiteko aurretik zehaztutako adierazleak erabiltzen dira eta lortutako emaitzak hezkuntza komunitateari edo udalerritari berari jakinarazten zaizkio.

**8. Memoria.** Egindako lanaren **memoria**.

**9. Komunikazioa.** Lana burutu ondoren, Eskolarteko Foroak **ingurumena hobetzeko proposamenak egiten dizkio udalari** (normalean alkatezarekin entzunaldia egiten da).

**2003-06 ikasturteetako esperientzia ebaluatu zen pasa den ikasturtean, ondorengo emaitzak lortu zirelarik:**

**1.** EA 21 programak jarraitzen duen hezkuntza eta ingurumen filosofiak eta udalerriarekiko konpromisoak potentzialtasun handiko programa bihurtzen dute. Ikastetxe batean garatzen diren proiektuak biltzen ditu EA 21 programak, eta irakatsi eta ikasteko prozesua errazteaz gain, ikastetxeak dituen arazoak konpontzeko bitarteko egokia da.

**2.** Garapen Iraunkorrerako Hezkuntzaren esparruan planeta osoko hainbat programarekin batera garatzen da.

3. Euskal erakundeek hartutako konpromisoa aitortzen da. Funtsezkoa da hainbat alderdi hobetzea, hala nola: aholkularitza teknikoaren kontratu arazoak, hainbat udalen inplikazioa, erakundeen arteko koordinazioa eta abar.

4. Ingurugela-ren aholkularitzak positiboki baloratu du programaren garapena eta hainbat eragilek egindako lana. Era berean, koordinatzaileek balorazio oso ona egin dute jasotako prestakuntzari buruz eta aholkularitza funtzioei buruz galdetean. Hori programaren alderdisendoenetako bat da. Baliabide didaktikoak falta dira. Eskola kopurua/aholkulari ratioa nabarmenki areagotu da azken urteotan.

5. Bost koordinatzailearen artetik lauk balorazio "ona" egin dute programari buruz galdetean. Aholkularitzaren ustez, koordinatzaileek egindako lana positiboa izan da. Horixe da programa garatzeko bigarren alderdi sendoa. Lan itzela eta kalitate handikoa egin dute. Koordinatzaileek egindako lanak, askotan isolaturik, batzuetan irakasle talde baten laguntza jaso du. DBHren antolaketa berak zailago bihurtzen du beharrezkoa den koordinazioa.

6. Hirugarren alderdi sendoa programaren protagonistak dira: ikasleak, hain zuzen. Programaren balorazio positiboa egin dute.

7. Programaren balorazioa positiboa bada ere, oraindik hobetu beharrek hainbat alderdi ikus daitezke, besteak beste, programaren definizioa eta helburuak, gaiak, esparruak, curriculum ezarketa eta abar.

8. Bereziki azpimarragarria da ikastetxeen arteko koordinazioa. Nahiz eta ez izan funtsezko alderdi bat, udalerrido eskualde bateko koordinatzaileen arteko bilerek balorazio positiboa lortu dute.

9. Alderdi ahul bat: parte-hartzea. Ikasleen partaidetza positiboa azpimarratu behar da. Irakasleena onargarria izan da, eta familien eta irakasle ez diren langileen partaidetza, ordea, oso baxua izan da.

10. Ebaluazioa da beste alderdi ahul bat, komunikazioarekin batera. Balorazioak egiteko pertzepzioak erabili dira eta ez, ordea, datu zehatzak (adierazleak). Ingurugelak edo administrazioak ez dute proiektuen azken balorazioa egin; hortaz, ez dute programaren balorazio orokorra egin. Ikastetxeek, oro har, ez dute komunikaziorako plangintzarik.


11. Lan handia egin da eta kalitate handikoak dira zenbait proiektu. Kanpo ebaluaziorik egin ez denez, ez da berriaz aitortu orain artean egindako lana, eta aitortpen hori lortzeko beharra azpimarratu dute eragile ugari. Programa honetan parte hartzen duten ikastetxeen aldeko diskriminazio positiboa egiteko beharra azpimarratu da halaber, bai eta eskolan programa dinamizatzen duten arduradunen aldekoa ere (koordinatzailea, talde dinamizatzailea...).

12. Amaitzeko, programako eragileek egindako batez besteko balorazioa "ona" izan da. Bereziki azpimarragarria da aholkulariek, koordinatzaileek eta irakasleek egindako balorazio altua, eta, neurri txikiagoan, familiek eta irakasle ez diren langileek egindakoa. Aipagarria da, halaber, ikasleek egindako balorazioa. Ikasleak dira programa hobekien baloratu duten eragileak eta beraiek dira protagonista nagusiak.

Finean, ikerketako emaitzen arabera, Eskolako Agenda 21 programa ona da, potentzialtasun handikoa, proiektu orokor baten barruan dago kokatuta, garapen egokia du eta, eskuarki, programan inplikaturako estamentu guztiek positiboki baloratu dute. Etorkizunean funtsezkoa izango da programa laguntzen duten erakundeen inplikazio maila areagotzea. Funtsezkoa izango da, halaber, programaren poten-

**“Eskolako Agenda 21 programaren filosofiak ez du eskolako zereginak ugarituko dituen programa bat eskaintzea bilatzen, baizik eta esparru berri bat osatzea eta esparru horretan garatzen diren esperientzia on guztiak barne hartzea”.**

tzialtasunak garatzea, alderdirik ahulena hobetzea, ikastetxeen lana aitortzea eta esperientziak eta programa bera trukatzeko sare bat sortzea. ●



## Komenigarria al da ikastaldeak mantentzea Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arte? Ala egokiagoa da irakaskuntzan zehar ikasleak taldez aldatzea



Erantzun arinegia emateak arrisku handiegia duenez, maistra eta pedagogo gisa ditudan ikasketak eta irakaskuntzan daramazkidan urteetan atera ditudan ondorioetatik hainbat irizpide azalduko dizkizuet:

- **Luzaroan taldea mantentzearen irizpidearekin ez dut bat egingen.** Iruditzen zait bi urtetik hasi eta Batxilergora arte kide berberekin egon beharrak onurak baino kalte gehiago ekarriko dizkiola haur bati. Kontuan hartzen badugu aniztasunak aberasten gaituela eta egoera eta pertsona berrietatik ikasi egiten dugula, muga estuegiak jartzen ari gara eta haurraren garapen sozialari aukerak murrizten.

- **Talde orok bere denbora behar du gauzatzeko.** Taldeko partaide direnei elkar ezagutzeko astia eman behar zaie. Konfiantzazko giro batean kide bakoitzak bere ideiak, nahiak eta kexak adierazteko giroa lortu beharko luke, behar denean tutorearen lidergo paperaren babesa eta laguntzarekin. Talde giro hori lortzeko behar den den-



**Gabi GOIA**

BERAKO TOKI ONA INSTITUTUKO ORIENTATZAILEA

bora desberdina da kasu bakoitzean eta batzutan zaila izaten da erdiesten. Bestalde, ikastaldeak bizirik baldin badaude, memento gozoak, gatazkak eta gorabeherak dituzte. Guztiak dira ikasleko egoera paregabeak eta horien birtartez ikasleen garapen afektiboa, emozionala eta soziala bermatzen ari gara.

- **Taldeen sortzen diren dinamika negatiboak bihurtzen direnean.** Denbora pasa ahala, ikastalde batean partaide bakoitzak asumitzen duen papera edo rola oso definituta agertzen da, behin eta berriz jarrerak eta egoerak errepikatuz, batzuen onerako eta berteen kalterako. Adibidez, pailazoarena egiten duena, bere iritzia inposatzen duena, beti isilik dagoena edo kasurik okerrenetan berteen isekak jasotzen dituen "ahatetxo itsusia", esate baterako. Horrelako egoerak "tutoretza" lan egoki batekin landu daitezke eta hainbat arazo berbideratu, baina, ez beti. Zenbait kasutan, sufri-mendu mailak irauten duenean taldea desegin bertze biderik ez dago.

Azaldutako bi ideiak kontrajarriak iruditu arren nire ustez ez da horrela. Pedagogikoki astakeria litzateke urte-tik urtera, zentzurik gabe edo probatze-arren ikasleak mugitzea. Hala ere, taldeak eskaintzen dituen onurak desgertzen direnean bertan mantentzea ere ez du merezi. Bizitzako esparru eta



egoera gehienetan bezala, “orekaren printzipioa” bilatzera jo behar dugu, tokian tokiko errealitatea sakonean aztertuz eta erabakiak hartuz.

- **Etapak aldaketa memento estrategikoa izan daiteke taldez aldatzeko.** Garapenaren psikologian oinarritzen bagara, 5 urte arte, haurrak ezaugarri zehatz eta komunak adierazten dituela konturatuko gara, hain zuzen Haur Hezkuntzan pasatzen duen garaian. 6 urtetik 11 urtera, batzuek latentzia garaia edota eskolako urteak deiturikoa, Lehen Hezkuntzarekin bat dator denboran eta bere adierazle propioak ditu. Ondoren, Bigarren Hezkuntza, nerabezaroarekin lotzen dugu eta dakigun bezala beste ezaugarri fisiko, kognitibo eta sozialekin dator. Nora noa horrekin guztiarekin? Hezkuntza etapa bakoitzak bere pisu esanguratsua duela adierazi nahi dut, etapa batek bestera pasatzeak aldaketa akademikoak dakartzala eta baita ere aldaketa ebolutiboak. Memento horietan, haurra, ikaslea edo nerabea bere bizi-tzako aro berri baten atarian dagoela eta, etapa aldaketa memento estrategikoa izan daiteke taldez aldatzeko, betiere erronka berri bezala planteatuta eta inguruak eskain diezaiokeen euskarri baliatuta (familiaren laguntza, tutorearen informazioa...).

### Zein irizpide erabili behar du ikastetxeak ikasleak taldekatzerakoan?

Hauetxek izanen lirakeke nire ustez garrantzitsuenak:

- **Ikasleen kopurua:** begi-bistakoa iruditu arren hauxe izaten da banaketa egiterakoan kasu gehienetan abiapuntutzat hartzen dugun irizpidea: taldeak orekatuak izan daitezten kopuru aldetik. Alde nabarmenak baldin badaude talde desberdinen artean bai irakasleen bai familien aldetik arazo iturri izaten dira.

- **Sexuaren arabera:** posible izanez gero, neska eta mutil kopuru berdintasuna egotea talde bakoitzean. Horrela txikitatik genero berdintasuna bermatuta legoke.

- **Hezkuntza Premia Bereziak** dituzten ikasleak modu orekatuan banatzea komeni da ikastalde bat baino gehiago daudenean maila bakoitzean. Horrela, ikasleak ahal den modu normalizatunean ohituko dira aniztasunarekin bizitzen. Horrek ez du kentzen, astean zehar ordu jakin batzuetan, Heziketa Behar Bereziak dituzten talde ezberdinetako ikasle horiek bakarka edo taldeetikitik laguntza espezifikoak jasotzea.

- **Etorkinen kopurua** eta beraien ezaugarriak ere kontuan hartu beharko ditugu. Taldearen indarra erabili behar da integrazioa sor dadin, hizkuntza berria ikas dezaten eta irakasleen lana ahal den neurrian errazagoa gerta dadin.

- Haur Hezkuntzan eta eskolako lehenengo urteetan **ama hizkuntza** pisuzko aldagaia da. Urte horiek erabakiorrak direnez haurraren hizkuntza bereganatzeko prozesuan eta gehienbat beraien arteko hartu-emanen (jokoan, komunikazioan...) ikasten dutenez, ama hizkuntza aberatsa duten ikasleak benetako altxorra bihurtzen zaizkigu batez ere adin tikitetan. Talde desberdinetan estrategikoki kokaturik irakaslearen tresna eta lagun bikainak izanen dira ikas-irakas prozesuan.

- **Ikastetxearen antolaketa neurriak**, aukerako ikasgaiak eta ibilbideak: DBHko 3. eta 4. mailetan, Nafarroako institutuetan behinik behin, hurrengo ikasturterako izena ematerakoan ikasgai kopuru jakin bat aukeratu behar da eta horren arabera, ikaslea “ibilbide” batean edo bestean egonen da. Ikastetxeen antolamendua errazteko ibilbide berdineko ikasleak talde berean kokatzen dira eta salbuespenak salbu, hauxe izaten da taldeak osatzeko irizpide garrantzitsuenetakoa. Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza amaituta, 16 urterekin, modu naturalean bereizketa sakona ematen da: batzuk Batxilergoko bidea hartzen dute eta besteek Lanbide Heziketa, kasu aunitzetan ikastetxez ere aldatuz. Batxilergoa egitea hautatzen dutenek ere, zein Batxilergo mota egin pentsatu behar dute eta

**Pedagogikoki astakeria litzateke urtetik urtera, zentzurik gabe edo probatzearen ikasleak mugitzea. Hala ere, taldeak eskaintzen dituen onurak desagertzen direnean bertan mantentzea ere ez du merezi.**



aukera horren arabera talde batean edo bestean kokatuko dute beren burua.

- **Ikasleak gaitasunaren edo emaitza akademikoaren arabera** elkartzeak baditu bere jarraitzaileak (ikasle onak-zailtasunak dituztenak). Ni ez naiz horren aldekoa kasu gehienetan. Aniztasunak aberasten gaituela eta guztion gaituak ikas dezakegula sinesten dut. Bestalde, heztea elkartean eta gizartean bizitzen erakustea baldin bada, gelak ere gizartearen ispilu izan behar du. Heztea nota onak lortzea baino askoz gehiago da.

Orokorrean irizpide hori defendatzen badut ere, nabardurak badaude: Bigarren Hezkuntzako azken urteetan, adibidez, 15-16 urterekin eskolatzeko prozesuaz nazkatuta dauden ikasleekin, talde arruntan ikasgaitzak jarraitzeko modurik ikusten ez denean, talde txiki eta homogeenak, eduki egokitu-takoekin eta tutoretza egoki batekin emaitza “hobeak” lortzea posible dela baieztatu dut. Adin zehatz eta kritikoa horretan, talde “bereizi” homogeenak aukera bat izan daitezke hezkuntza sistemak ikasle horiek gal ez ditzan eta hainbat kasutan Bigarren Hezkuntzako titulua lor dezaten.

Orain arte aipatu ditudan taldeak osatzerakoan kontuan hartu beharre-

## Ikasleak taldekatzeko gakoak hiru dira: ikasleak ongi ezagutzea; irizpide

## pedagogikoak besteen gainetik ezartzea; eta aniztasuna heziketan balioa eta tresna dela jakitea.

ko irizpide orokorrak dira. Jarraian, noizean behin gerta daitezkeen beste hainbat egoera ere islatzea komenigarria deritzot:

- **“Bullying” kasuetan:** gizatalde guztietan bezala, ikastetxeetan, gelaetan, jangelan, autobusean edo jolastokietan gatazkak, arazoak, gertaerak, istiluak... daude. Horraino normalizat joko dugu zeren, jakin badakigu, bizia dagoenean gatazka badagoela. Hala ere, Lehen Hezkuntza aurrera doan neurrian edo DBHko lehen zikloan, gatazka horiek bertze izaera edo dimentsioa hartzen dute eta ikasleengan duten ondorioa nabarmenagoa da. Batzuetan antzematen ditugu, besteetan ez. Nahiz eta badakigun horrela ikasten dutela bizitzen, elkarren artean haserretzen eta baketzen, une zehatz batzuetan helduen esku-hartzea ezinbestekoa da. Gatazka horiek “berdinen arteko eraso” edo bullying bihurtzen direnean neurriak hartu behar dira eta zenbait ikasle taldez aldatu beharko ditugu edo muturreraino joanez ikastetxez aldatu.

- **Bikiak, hirukiak... ditugunean:** horrelako kasuetan talde desberdinetan kokatzeko eskaera familiengandiketo daiteke edo ikastetxeak berak proposa diezaieke. Lerro bakarreko ikastetxeetan ez da posible iza-

ten, baina aukera dagoenean, bikiak, hirukiak bereizteak badu bere zentzua; hasieran gogorra iruditu arren, haurrentzat positiboa da bakoitza bere noratasuna garatzen joan dadin elkarrenganako dependentziak eta gehiegizko loturak saihestuz.

- **Familiak talde aldaketa eskatzen dutenean:** uste dugun baino guraso gehiagori pasatzen zaie burutik semea edo alaba berari komeni ez zaion taldean dagoela. Gehienetan haurren kezak entzuten dituztelako, lagunak direla, tutorea dela... beste batzuetan emaitza akademikoak txarrak direnez, taldearen eragin kaltegarriatik izan daitekeela pentsatzen dutelako. Gerta daiteke benetan zailtasun edo arazo larriren bat izatea ere ikasle batek talde horretan.

Kasu guztietan gurasoekiko ikastetxearen jarrera irekia izan behar du. Beti entzun behar zaie, toki, memento eta modu egokian eskaera eginez gero, alegia, tutoreari, ikasketa buruari edo orientatzaileari hitzordua eskatuz eta dagokion bulegoan bilduz. Gero, familiaren arazoak tutorearekin, irakasle ezberdinekin edo ikaskideekin kontrastatu ondoren, ikastetxeak, talde aldaketa beharrezkoa den ala ez erabakiko du.

Horrela jokatzek gurasoak asko lasaitzen ditu eta familia-eskola arteko harremanak aberastu eta indartu egiten dira.

- **Ikasleak ikastetxez aldatzen direnean:** familia bizilekuz aldatzeak, adibidez, ikastetxe aldaketa dakar; eta paz aldatzerakoan ere, maiz ikastalde

osoa institutura edo ikastetxe berrira doa. Une garrantzitsua da bai ikasleentzat bai familientzat. Egoera berriari aurre egin beharrik kezka, beldurrak eta nolabaiteko ezinegona sortzen die eta taldekide berriak zein izanen diren izatena da galdera nagusienetakoa.

Horrelako kasuetan ezinbestekoa eta oinarritzkoa da jatorrizko ikastetxeen eta berriaren artean koordinazioa egotea. Eskola batetik bestera informazio trukaketa bermatu behar da, bai Lehen eta Bigarren Hezkuntzako orientatzaileen artean edo ikastetxeek antolatutako beste bideren bat erabiliz. Horrela, ikastetxe berrian, aurrekoan antzeman diren arazo edo harreman kritikoak beste modu batera moldatzen saia daitezke.

Amaiera gisa, niretzat, ikasleen taldekatzearen hiru gakoak zein diren adierazi nahi nitzuke:

1.- Banan-banan **ikasleak ongi ezagutzea:** Haur eta Lehen Hezkuntzan taldeko tutoreak betetzen du lan hori. Bigarren Hezkuntzan ikasketa burua eta orientatzailearen artean ikastetxe-ko ikasle guztiei buruzko ezagutza edo informazioa beharko lukete.

2.- Erabakiak hartzerakoan **irizpide pedagogikoak** beste guztien gainetik ezartzea, betiere ikaslearen ongizate emozionala eta akademikoa xede izanik.

3.- **Aniztasuna** balioa eta tresna da heziketan. Horretan sinesten badugu, ikastaldeetan islatu eta erabili behar dugu herritar irekiak eta demokratiakoak hezteko. ●



Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

apirila

berriak

# Unibertsitatez kanpoko hezkuntzako ordezkariak sindikala

## NAFARROAko itunpeko eskolen emaitzak

	SEPNA	UGT	ELA	NA	LAB	GUZTIRA
<b>Emaitzak</b>	<b>57</b>	<b>29</b>	<b>17</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>112</b>

## NAFARROAko ikastolen emaitzak

	LAB	ELA	Besteak	GUZTIRA
<b>Emaitzak</b>	<b>36</b>	<b>7</b>	<b>-</b>	<b>43</b>

## NAFARROAko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko emaitzak

Hauteskundeak maiatzaren 16an egingo dira.

## EAEko Haurreskolak Partzuergoko emaitzak

	LAB	STEE-EILAS	ELA	GUZTIRA
<b>Emaitzak</b>	<b>18</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>27</b>

## EAEko ikastolen emaitzak

	LAB	ELA	Besteak	GUZTIRA
<b>Emaitzak</b>	<b>139</b>	<b>95</b>	<b>9</b>	<b>243</b>

## EAEko itunpeko eskolen emaitzak

	ELA	CCOO	STEE-EILAS	LAB	UGT	Besteak	GUZTIRA
<b>Emaitzak</b>	<b>400</b>	<b>85</b>	<b>73</b>	<b>27</b>	<b>13</b>	<b>10</b>	<b>608</b>

## EAEko unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko emaitzak

	LAB		ELA		CCOO		EILAS		UGT		Besteak		Guztira	
	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007	2003	2007
<b>Irakasle funtzionarioak</b>	18	20	18	18	32	31	20	25	9	5	0	0	97	99
<b>Irakasle hezitzaileak</b>	18	16	16	13	10	7	12	9	2	1	2	1	60	47
<b>Zerbitzuetako langileak</b>	20	13	21	14	8	5	0	0	5	3	0	0	54	35
<b>Erljio arloko irakasleak</b>	0	0	4	3	4	3	0	0	1	1	0	0	9	7
<b>GUZTIRA</b>	56	49	59	48	54	46	32	34	17	10	2	1	220	188

# Eskola Kontseiluak hautatzeko hauteskundeak egin dira EAEn

Hezkuntza erkidegoak ikastetxearen funtzionamenduan parte hartzeko modua da Eskola Kontseilua, ikastetxearen antolakuntza, jarduera orokorra eta ebaluazioaren inguruko eztabaidagunea izateko asmoz. Ikastetxe guztietan derrigorrez daude bai klaustroa eta bai Eskola Kontseilua, eta zentroaren ardura da irakasleen, gurasoen eta ikasleen parte-hartzea sustatzea. Martxoaren 19tik 22ra bitartean Ordezkaritza Organo Gorenak eta Eskola Kontseiluak berritzeko hauteskundeak izan dira EAEn eta apirilaren 16rako definituko dira ofizialki. Ipar Euskal Herrian ikasturte hasieran osatu ziren eta Nafarroan ikasturte osoan zehar, zentro bakoitzak erabakitzen duenean.

## Eskola Kontseiluen FUNTZIOAK

IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN	ITUNPEKO IRAKASKUNTZAN
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikastetxearen hezkuntza proiektua, antolakuntza eta jarduera araudia eta kudeaketa proiektua onartzea, bete daitezen begiratzea eta ebaluazioa egitea.</li> <li>- Ikastetxearen urteko plana eta urteko txostena onartzea.</li> <li>- Prestakuntza jardueren, eskolaz kanpokoen eta osagarrikoen egitaraua eta urteko kudeaketa egitaraua onartzea, jarraitzea eta ebaluatzea.</li> <li>- Zuzendaria hautatzea eta, beronen proposamenez, ikastetxeko gainerako Bakar organoak izendatzea. Zuzendariaren izendapena ezeztatzea edo bera indargabetzeko proposatzea, bi herenek onartutako erabakiz.</li> <li>- Irakasleen onarpena erabakitzea, indarrean dagoen araudia betetz.</li> <li>- Irakasleen agindupe arloko gatazkei irtenbidea ematea eta zigorrak ezartzea, ikasleen eskubide eta betebeharren arauen arabera.</li> <li>- Beste ikastetxe batzurekin lankidetzatza harremanak izatea kultura eta hezkuntza helburuz.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaritzaren hautuan eta kargu uztean esku hartzea.</li> <li>- Irakasleen hautuan eta kaleratzean esku hartzea.</li> <li>- Irakasleen onarpenari dagokionez, araudi orokorra betetzearen bermaketa.</li> <li>- Ikasleekin izan daitezkeen gatazka larriek (disziplina arloan) irtenbidea ematea.</li> <li>- Administrazio diruak, baimendutako kopuruak eta kontuak onartzea.</li> <li>- Zuzendaritzak gauzatutako ikastetxeko urteroko plangintza orokorra onartzea eta ebaluatzea.</li> <li>- Ikastetxearen ildo pedagogiko orokorra ezartzen parte hartzea eta eskolaz kanpoko ekintzen norabidea ezartzea.</li> <li>- Ekintza osagarrien (bisita, bidaia, jangela, udalekuak...) plangintza eta garapenerako ildoak ezarri.</li> <li>- Beste ikastetxe batzurekin lankidetzatza harremanak izatea kultura eta hezkuntza helburuz.</li> <li>- Zentroaren barne araudia onartzea.</li> <li>- Ikastetxearen jarduera orokorra gainbegiratzea, administrazio eta irakaskuntza alderdietan.</li> </ul>

## Eskola Kontseiluen OSAKETA

IRAKASKUNTZA PUBLIKOAN	ITUNPEKO IRAKASKUNTZAN
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaria, <i>organoko lehendakari izango dena</i></li> <li>- Ikasketa burua</li> <li>- Zinegotzia edo ikastetxea dagoen udal mugarteko udalaren ordezkaria.</li> <li>- Irakasle klaustroak hautatutako irakasle kopuru jakina, <i>ikastetxeko ordezkari organo goreneko kide guztien herenetik beheragokoa izaterik ez duena</i></li> <li>- Kontseiluaren erdia osatuko dute irakasle eta ikasleen artean (ikasleak DBHko lehen ziklotik aurrera)</li> <li>- Administrazioa eta zerbitzuetako langileen ordezkaria</li> <li>- Ikastetxeko idazkariak, organoko idazkari gisa arituko dena, hizpidea-rekin baina boto eskubiderik gabe</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Zuzendaria</li> <li>- Ikastetxeko hiru titular</li> <li>- Irakasleen lau ordezkari</li> <li>- Haurren guraso/tutoreen lau ordezkari</li> <li>- Irakasleen bi ordezkari (DBHko lehen ziklotik aurrera)</li> <li>- Administrazio eta zerbitzuen ordezkaria</li> </ul>

## IPAR EUSKAL HERRIAN

### Sare publikoan

Ikasturte hasieran hautatzen da eta urtero aldatzen da, nahiz eta partaide batzuk mantentzen diren. Hautaketa egiteko ez da hauteskunderik egiten, udalak berea proposatzen du eta guraso elkarteak ere bai.

**Ordezkariek:** irakasle guztiak, guraso elkarte bakoitzeko ordezkari bat eta udaleko ordezkari bat edo bi.

### Ikastoletan eta eskola giristinoetan

Gurasoak hautatzeko hauteskundeak gauzatzen dituzte.

**Ordezkariek:** irakasle guztiak eta udaleko ordezkari bat, nahi badu, eta gurasoak.

### Kolegioan eta lizeoan

Administrazio Kontseilua deitzen zaio eta ikasturte hasieran hautatzen da, urtero aldatuz, partaide batzuk mantenduz.

Ordezkaritza bakoitzak bere hauteskundeak ditu.

**Ordezkariek:** zuzendaria, langileen ordezkari bat edo bi, irakasleak, gurasoak, mediku edo erizaina (egonez gero), gizarte langilea, ikasleak, udaleko ordezkaria eta departamenduko ordezkari bat (kolegio eta lizeoen erai-kinen ardura departamentuarena baita).

# Elkarrekin bizitzen eta komunikatzen ikasteko jardunaldiak Iruñean

Aurten Ikastolen Konfederazioak Lehen Hezkuntza hartuko du hizpide eta gogoeta gai gisa XIV. jardunaldi pedagogikoetan. Gaia oso zabala izanik, bizikidetzeta eta komunikazioan zentratuko dira eta Iruñeko Batzar Jauregian izango dira jardunaldiak apirilaren 24, 25 eta 26an.



**Matrikula epea:**  
Apirilaren 20ra arte  
**Informazio gehiago:**  
EHIK  
**Arantza Munduate**  
605 715 115  
**Belen Baztarrika**  
943 445 108

Martxoak 24	Martxoak 25	Martxoak 26
<p>9:30-10:00 Irekiera ofiziala.</p> <p>10:00-11:00 "Konpetentzietan oinarritutako curriculum: Lehen Hezkuntzarako erronkak", <i>Xabier Garagorri</i></p> <p>11:00-12:00 "Tutoria entre iguales: aprender de la diferencia", <i>David Duran Gisbert</i></p> <p>12:20-13:30 Talde lana eta batera jartzea</p> <p>15:00-17:00 Esperientziak. Elkarrekin lanean: TXANELA: <i>Erentzun ikastola, R.M. Azkue ikastola eta Salvatore Mitxelena ikastola</i></p> <p>17:00-17:15 Egunak emandakoaren bilduma eta biharamuneko aurreikuspenak</p>	<p>9:30-10:30 "Aprender a convivir", <i>Xesús Rodríguez Jares</i></p> <p>10:30-11:30 "Gizarte antzerkia. Heziketa-bide", <i>Orla Hasson</i></p> <p>12:00-13:30 Talde lana eta batera jartzea</p> <p>15:00-17:00 Esperientziak. Elkarbizitarako hezkuntza proiektua, pentazitzea eta etorkinak etxekotzen: <i>Lazkaoko San Benito ikastola, Lizarra ikastola, Urretxu-Zumarragako ikastola eta Eguzkibegi ikastola</i></p> <p>17:00-17:15 Egunak emandakoaren bilduma eta biharamuneko aurreikuspenak</p>	<p>9:30-10:30 "Ondo komunikatzea eta ondo pentsatzea. Txanponaren aurpegi biak", <i>Uri Ruiz Bikandi</i></p> <p>10:30-11:30 "Actitudes y habilidades de comunicación con las familias", <i>Angela Magaz</i></p> <p>11:30-12:00 "Familia eta ikastola: gurasoen ikuspuntua", <i>Araiz Undabeitia eta Gaizka Larrañaga</i></p> <p>12:30-13:30 Talde lana eta batera jartzea</p> <p>15:00-17:00 Esperientziak. Informazio eta komunikazio teknologiak: <i>Jakintza ikastola, Aita Larramendi ikastola eta Ikastolen Konfederazioa</i></p> <p>17:00-17:15 Jardunaldien itxiera</p>

## Ikastaroak

- \* **Hezkuntza arloko hiztegia** **Noiz:** apirilak 18, 17:00-19:00. **Non:** EIBZn (Mokarte parkea zk.g., 31 620 Uharte). **Informazio gehiagorako:** <http://www.pnte.cfnavarra.es/eibz/ikastaroak/index.htm>
- \* **Getxo Linguae 2007 Kongresua: Literatura hezkuntza XXI. mendeko ikasgeletan** **Noiz:** maiatzak 16 eta 17. **Non:** Igeretxe Hotelean (Getxo Udalerriko Ereaga hondartzaren ondoan). **Informazio gehiagorako:** <http://getxolinguae2007.wordpress.com/>
- \* **Bigarren hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarra** **Noiz:** apirilak 17, 18, 25, 26 eta maiatzak 2, 18:00-20:00. **Non:** Iruñeko ILZko egoitzan. **Emailer:** Luisa Calvo Arbildi. **Informazio gehiagorako:** Saioa Jaime 948 36 25 63/ nafarroa@ueu.org
- \* **Soziolinguistika nola irakatsi?** (IRALE 06/07) **Noiz:** maiatzak 7, 14 eta 15, 9:00-14:00 eta 15:00-18:00. **Non:** Arizmendi ikastolan (Larrin plaza, 1-Aretxabaleta). **Emailer:** Itsaso Garmendia eta Arkaitz Zarraga.

# Giza katea hezkuntza eskubideen alde apirilaren 23tik 29ra

**Hezkuntzaren aldeko 2007ko Munduko Ekintza Astea** ospatuko da **apirilaren 23tik 29ra** Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainak antolatuta. Aste horretan mundu osoan giza kateak egingo dira ozen aldarrikatzeko hezkuntza eskubidea oinarriko eskubidea dela eta denei bermatu behar zaiela.

Kanpaina hau 150 herrialdetako GKE eta sindikatuek antolatzen dute. Aipatutako aldarrikapenarekin batera gobernuei eta nazioarteko komunitateari presio politikoa egitea dute helburu, mundu guztian oinarriko eta doako hezkuntza publikoa eskaintzeko egindako promesak bete ditzaten. 2000. urtean Dakarren egin zen hezkuntzari buruzko munduko foroan guztientzako hezkuntza lortzeko helburuak onartu zituzten, eta besteak beste, zera aitortu zuten: *“Ziurtatzen dugu 2015ean neska-mutil guztiek oinarriko, derrigorrezko, doako eta kalitatezko hezkuntza jaso abal izango dutela, hezkuntza guztia bermatu arte”.*

Ezarritako helburuak lortzeko epe mugaren erdi-bidean gaude, baina

gauregungo erritmoan jarraitzen badugu, ez dira beteko. 80 milioi neska-mutil ez dira eskolara joaten oraindik eta 1.000 milioi heldu analfabetoak dira.

## Nola parte hartu?

Hiru modu daude:

1- Proposamen didaktikoa landuz. [www.cme-espana.org](http://www.cme-espana.org) web orrian eskura daiteke.

2- Ordezkarri politikoei post-it-ak bidaliz egindako promesak gogoraraziz.

3- Hezkuntzaren aldeko giza katea parte hartuz.

## Informazio gehiago:

**Alboan:** Marlen Eizagirre

Tel.: 944 151 135.

[m.eizagirre@alboan.org](mailto:m.eizagirre@alboan.org)

**Intermon-Oxfam:** Lianella Gonzalez

Tel.: 944 160 000

[educacionbilbao@intermonoxfam.org](mailto:educacionbilbao@intermonoxfam.org)

[intermonoxfam.org](http://intermonoxfam.org)

**Save the children:** Nahia Perez

de San Roman

Tel.: 945 134 368

[participacion.euskadi@savethechildren.es](mailto:participacion.euskadi@savethechildren.es)

[savethechildren.es](http://savethechildren.es)

## “Idazle gaztea” lehiaketako lanak Internetez bozkatzeko aukera

**Idazle gazteak** lehiaketan parte hartu duten Gipuzkoako DBHko hainbat ikastetxetako gazteek idatzitako narrazio eta poesia lanak Interneten jarrita daude. Guztira 170 lan jaso ziren eta Galtzagorri Elkarteak kategoria bakoitzeko 10 lan aukeratu zituen. Horiek dira Interneten zintzilikatu direnak ([www.idazlegaztea.org](http://www.idazlegaztea.org)) eta nahi duen orok bozka dezake maiatzaren 15a bitartean. Horrela, sail bakoitzetik hiruna lan aukeratuko dira.

## Literatur Sorkuntzako Lazarillo Saria

**OEPLI Haur eta Gazte Liburuaren Espainiako Erakundeak antolatu duen Literatur Sorkuntzako Sarian 12 urtetik aurrerako irakurle zuzendua dago. Espainiako edozein hizkuntzatan idatzirikoa literatur lanak lehiatuko dira.**

**Lanak aurkezteko epea maiatzaren 30ean bukatzen da.**

**Informazio gehiago:**

**Galtzagorri Elkarteak**

Tel.: 943 471 487

**E-posta:** [galtzagorri@galtzagorri.org](mailto:galtzagorri@galtzagorri.org)

[galtzagorri.org](http://galtzagorri.org)

[www.galtzagorri.org](http://www.galtzagorri.org)

## Experimentaldia 2007. Zientziaren II. Azokan parte hartzeko aukera

Donostiako Zientziaren kutxaGuneak antolatuta Experimentaldia 2007. Zientziaren II. Azoka ospatuko da **maiatzaren 4an eta 5ean.**

Nahi duten ikastetxetako eta hezkuntza maila guztietako lantaldeek hartu ahal dute parte. Ikasle talde bakoitzak proiektu zientifiko edo teknologiko bat aurkeztu behar du, irakasle baten laguntzaz. Ikasleek erakusketa areto bat izango dute Experimentaldia irauten duen bi egunetan beren lanak bisitariari erakusteko.

**Parte hartzeko, jarri harremanetan Zientziaren KutxaGunearekin:**

Tel.: 943 012 900

E-posta: [experimentaldia@kutxagunea.org](mailto:experimentaldia@kutxagunea.org)


[kutxagunea.org](http://kutxagunea.org)

[www.miramon.org](http://www.miramon.org)



Escolak Euskaldundu herri ekimenak martxoaren 10ean Donostiako Antiguoko frontoian egindako ekitaldiarekin eman zion amaiera “Bada garaia: bai escolak euskalduntzeari!” kanpainari. Beste behin aldarrikatu zuten euskal herritar guztiei bermatu behar zaiela Euskal Herriko berezko hizkuntza jakitea, eta alderdi politikoei erantzukizunez jokatzeko eta horretarako baliabideak jartzeko eskatu zien.

# argitalpenak



## Nire hiriko poemak

Ana Urkiza  
PAMIELA


Eraikinen usaia, espaloi gidariak, postontziaren lurrina, ametsak saltzen diren azoka... kalearen poetikaz ari zaigu Ana Urkiza idazlea. Poesia sorta hau, kalekoak eta bihotzekoak ataletan banatzen da, hiriraren txikitasun eta handitasunean igeri egitera gonbidatuz. Elena Odriozolak osatu ditu poesiak bere marrazkien bidez. •



## Emakumeak: bizipenak

Enkarterri eta Meatzaldeko ikasleak  
EUSKO JAURLARITZA

Enkarterri eta Meatzaldeko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 13 ikastetxeetako ikasleek idatzi dute liburu hau. Bertan, euren amoneri egindako elkarrizketen mamia jasotzen da, haien bizimodua nolakoa zen aztertzearen. Belaunaldi hartako emakumeen bizitza pribatuaren zertzeladak biltzen saiatu dira. •



## Munduko historiarik ederrena

Reeves H., De Rosnay J., Coppens Y., Simmonet D.

GAIAK


*Munduko historiarik ederrena* liburuak gure iraganaren hiru ekitaldi nagusiak azaltzen ditu. Lehenak astrofisikarekin eta kosmologiarekin zerikusia du, unibertso kontuak. Bigarrenak biologiarekin. Eta hirugarrenean, tximinoengandik gizakiarenganako eboluzioa ikusten da. •



## Urtxok ez zuten neska izan nahi

Seve Calleja  
EREIN


Urtxo kalean hotzez aurkitu zuten txakurtxo da. Izeba Julirekin bizi da, eta gozo-gozo zaintzen dute bai izebak eta bai ilobek, mimo handienak berari eskainiz. Baina, Urtxoren lagunek neska balitz bezala zaintzen dute, eta hori ez zaio larregi gustatzen Urtxori. Zergatik? Liburuaren orrialdeetan barna deskubritzen da arrazoa. •



## Adiskidetzea

Joan Maria Uriarte  
IDATZ

Adiskidetzearen egitura, oinarriak zein jomugak aztertzen ditu liburuxka honek. Baita Kristoren adiskidetze mezua eta elizaren eginkizun adiskidetzailea azaldu ere. Horiek dira liburuaren ardatzak. "Justizia eta Bakea-elizbarrutiko idazkaritza soziala" ko partaideak gauzatutako ekimena da, bake kultura sustatzeko asmoz. •



## Mixi marrau

J. M. Olaizola, "Txiliku"  
ELKAR

Maripi andereñoaren gelako umeak oso urduri daude, eta ez da erraza isiltasuna eta bakea lortzea. Horrelakotan, andereño Maripik hasperen egiten du, besoak zeru aldera altxatu, eta esaten du: "Mixi marrau!". Hitz magikoak entzutearekin batera, haurrak korrika eta presaka ipuinen txokora joaten dira. •



# ... goza nazazu gehiago

## Kirolean entrenatzaile- hezitzaileak erreferente dira



**Aitor URIARTE**  
TTAKUN KULTUR ELKARTEKO KIDEA

Ikasle eta irakasleen (hezitzaileen) arteko harremanak aipatu dira aurreko aleetan pare bat aldiz. Konforme nago, beraz, gelatik kanpo egiten diren jarduerak, eta bereziki irteerak, direla ikasle eta irakasleen artean egiazko harremanak sortzeko uneak, eta erabilerrak beste balio bat hartzen duela, baina askotan ez zaie etekinik ateratzen.

Hezitzailea da euskararen erabilera sustatzeko oinarritzko elementua, beraz, berebiziko garrantzia du parte-harritzaileen eta hezitzailearen arteko harremanak. Hezitzaileak erreferentzia positiboa izan behar du nerabearentzat, erakargarri eta nahitaezko gorabehera da hurbiltasuna. Hezitzailearen prestutasunaren bitartez lor daiteke hurbiltasuna: alde edo moldez, nerabeek konturatu behar dute hezitzailea "busti" egiten dela haiekiko erlazioan.

Hezitzaileek nerabeekin duten harremana ebaluatzeko, hiru maila bereiz daitezke:

- **Hezitzailea ez dago onartua:** hezitzailea onartua ez egoteak ez du esan nahi jarduera ezin denik aurrera atera.

- **Hezitzailea onartua dago:** hezitzaile onartuaren kasuan, jarduera normaltasunez gauzatuko da, baina nerabeek ez dute hezitzailearengan berentzat baliokoa den pertsona bat ikusiko, jarduera aurrera ateratzeko beharrezkoa den norbait baizik.

- **Hezitzailea erreferentea da:** hezitzailea erreferentea bada, ordea, hezitzaileak balio handia izango du nerabeentzat, eta harremana aberatsa izango da. Hezitzaileak oso leku egokia beteko du taldean, jardueran hainbat helburu proposatu ahal izateko.

Kirolean erraz ikus dezakegu erreferenteak duen garrantzia adierazteko jarduera. Eta hizkuntza erabilera erreferentearen onarpen mailarekin bat egoten da. Betiere, kontuan hartu behar da, jartzen den helburua eta helburuak eskatzen duen ahaleginaren arabera erreferente maila altuagoa edo baxuagoa eskatuko duela.

Modu naturalean egiten bada ere, askotan kirol entrenatzaileak jarduera berean aritzen diren adin nagusiagoko gazteak izaten dira eta erreferentzia edo onarpen maila altua izaten dute, oro har.

## ZER EGIN

Edozein kirolean aplikatu daitezkeen proposamenak da ondorengoak. Gazteen artean erreferenteak duen garrantziaz jabetzea eta rola dituzten ikuspuntu ezberdinak ezagutzea du helburu.

Kirol taldeetako gazteei, beraiek baino gazteago diren kirol berdineko hurrekin, beste rol batean aritzeko proposamena egingo zaie. Taldekide guztiei parte hartzeko eskatuko zaie, eta ikasturte berean bi edo hiru kontaktu izan ditzakete. Egitasmoari hainbat ikasturtetan zehar jarraipena emango zaio modu progresiboan.

Hainbat modutara aritu daitezke txikiagoen taldean parte hartzen: laguntzaile entrenamenduetan, laguntzaile partidutan, epaile lanetan, hurrekin bat gehiago izanez eta adibideetan protagonismoa hartuz, azalpen teorikoak emanez... Egitasmoak ez du inolako mugarik, ondo programatuz gero eta gazteen parte-hartzeari behar den garrantzia emanez gero oso eraginkorra da.

Parte-hartze horrek eskatzen duen ardurak, hizkuntza erabilera bermatzen du. Gazteek rola bereganatzen dutenean, hizkuntzarekiko jarrera eta erabilera modu naturalean barneratzen dute. Hizkuntza gaitasuna ona ez den kasuetan ere, rol horretan aritzeak gazteek duten desioak ahalegina egitera bultzatzen ditu.

*Erreferentearen aipamena Hezitzaileek Asko Egin Dezakete metodologian garatuta dago.*

# atzeko atetik



**Ilaski SERRANO**

TELEBISTA AURKEZLEA

- Otaola eta Serrano zigortute! Eta hurrenguen gimnasiatik klasera berandu ailegaten bazarie, Ikastola Egunen zigortute egongo zarie! (gure Matematikako irakaslea, eztarikoa zaina puztuta).

Gu guztiok, bapatean, txintxoak bihurtzeko errezeta zuten irakasleek! Ikasturteko momenturik onena zen Ikastola Eguna. Klase bakoitzak bere ikuskizuna prestatzen zuen jendearean egiteko. Mehatxua guztiz efikaza zen eta gure izaeren kontra, ondo portatzen ginen, data hori pasa arte behintzat. Egun horretako txarrena, nire kasuan, bikotea bilatzea zen. Zortzi mutil eta hogeita neska ginen klasean, eta neska altuenek (eta ni handiena nintzen),

## Ikastola Egunetik... mundura!

mutilez mozarrotu behar izaten genuen askotan. Hori zen urte haietako gauzarik txarrena: nire bi metroak! Udaleku, kanpamentu eta dantzaldietan inoiz ez ligatzea; dantza taldean eta lehen jaunartze egunean ilarako azkena izatea... Alde ona ere bazuen, mutilak, hain *sexapil* gutxi ikusita nigan, euren kontu guztiakin aholku eske etortzen zitzaizkidalako. Horri esker, gaur egun oso lagunak izaten jarraitzen dugu.

Kuadrilako neskak, guztia ziren niretzat. Lagun minak ginen eta beti batera egongo ginela zin egiten genuen behin eta berriz. *Ei zuek, umiek dakuzenien eta zabarrak garanien be bai, bale?* Non geratu ziren promesa guzti horiek... Bik haurra izan dute, bat droga kontuetan nahastu zen, bestea maitasunaren atzetikatzerrira joan zitzaigun, bestea, luzee-na, telebistako aurkezlea da.

Bizitzak mila buelta ematen dituela ez genekien orduan eta zoriontsuak ginen. Bizitzak mila buelta ematen dituela dakit orain, eta zoriontsuagoa naiz

orduan baino.

Urteak aurrera egin ahala, momentu berriak iritsi ziren, lagun berriak, maitasun berriak (mutilak hazi egin ziren eta aholkuak amaituta, azkenean muxuak iritsi ziren). Ikastolatik institutura, unibertsitatera eta handik auskalo nora! Herrian geratu dira orduko lagun batzuk. Sarritan ez dakit zeri buruz egin berba eurekin. *Etxe barria zelan? Umie gaisorik dakozu ondiño?*

Beste martxa bat daukat. Beste kezka batzuk. Aske sentitzen naiz nahi dudana lekuan eta nahi dudana jendearekin egoteko eta ikasi dut hori ez dela justifikatu behar inoren aurrean. Hori bizi eta aprobetxatu egin behar da.

Baina badakit, gaur egun naizena izateko, neure erabakiak hartzen ikasteko, jende askok egin duela lan. Amak egin du lanik handiena, baina ondo portatu ezean Ikastola Egunean parte hartuko ez nuenaren mehatxua egiten zidatenek ere, badute naizen modukoa izatearen "errua"ren zati bat. Eskerrik asko! ●



**Euskal herritarren % 29 eskolan zigor fisikoa debekatzearen alde dago. Aldiz, % 42 ez dago debekatzearekin ados.**

Iturria: Gizaker



# berria

BALEARENARRANTZA UNESTEKOTAN

ostirala



## Iruña-Veleian aurkitutako euskarazko hitzak III. eta VI. mendeen artekoak dira



### Asesinada la periodista que denunciaba los abusos de Putin

### Los jueces sustitutos de Caprizkou estudian demandar al Ministerio

### 18 500 personnes avec Batera pour un référendum sur le département

Aukera ezazu,  
BIZI euskaraz  
**berria**

# GERTURATU EUSKAL KULTURAREN UNIBERTSORA



**Hari** buletin elektronikokak euskal kulturaren aktualitatea gerturazten dizu egunero. Filbistak, Iritzak, adierazpenak eta, orain, beste bi sail berri: **Blog Miran** eta **Hari** tiraka. Egin harpidetza [dokum@argia.com](mailto:dokum@argia.com) helbidean eta duan jasoko duzu posta elektronikoz.

